

UDAL HAUTESKUNDEAK: ISABEL GALLASTEGI • ALKOHOLIKO ANONIMOAK 20 URTE

Arrasate

UPRESS

1985eko
maiatzak 5
275. zenb.



ELKARRIZKETA

Emilio Lozpez Adan

KULTURA

Leopoldo Panero






Ikarus Taldea

**Mundua
goitik
ikusita**



ZERBITZU BERRIA IKASTOLAN!!

Bazkalostean eta 4.30etatik 6etara etxerako-lanak
Mediateka berrian egiteko aukera izango duzu.



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

Maiatzaren 4tik 18ra matrikula enea

Arrasate eredu? eskarate, besterik ez

Guk, arrasatearrok, Arrasaten bizi garenok, sarritan entzun izan dugu, kanpokoentzat eta jende askorentzat herri honek daukan errelebantzia. Kooperatiben fenomenoaren bilakaera, Lankide Aurrezkia, etab.... gehien; baita euskararen aldeko apostua ere (AED, Arrasate Press, ATB, etab.). Horregatik eta beste zenbait gauzogatik eredu garela esan beharko, edo hobeto esanda, eredu da, herri honen eskaratea, kanpo-itxura.

Aldi berean, herri honetan, astebukaera gehienetan aukera desberdinak izaten dira: Amaia zineman, azken aldean, badabilta zenbait ekitaldi eskaintzen (zorionez ez bakarrik Arrasate Musikalen eskutik). Gehienetan kontzertuak badaude ere, hor dago Gaztetxea, negu zein udaberrian, nahiko merke, programazioa eskainiz, lokala eta azpiegitura hor daudelarik ekimen desberdinek erabil ditzaten.

Aurreko astebukaeran mobida oso polita izan da herrian, Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladak antolatuta Euskadi mailan. Informazio ugari (pankartak, panfletoak, hitzaldi eta eztabaidak) eta dibertsioa (kontzertuak, mendi martxa, bazkaria...). Baina, nola ez, Euskadi osoko jendea etorri arren, Arrasatetik partehartzailer oso gutxi. Eta beste guztiak? Bakoitza berean, "bere gauzetan" alegia.

Ba al zenekiten mobida guzti hau Arrasaten egitearen arrazoia ez dela kultur

etxea eskura izatea eta Gaztetxe handi eta apropos bat edukitzea? Tren hori egingo balitz, gure ingurua izango litzateke kaltetuenetariko bat (Udalaitz barrutik 3 bat tunel, Lezetxikiko kobak pikutara, trenbideak berak ehun bat metroko zabalera behar etab.). Hauek, dirudienez, ez dira nahiko arrazoi, jendeak gehiago parte har zezan, edo behintzat, pixka bat gehiago interesatzeko.

Laster ere, ekainaren hasieran, Egunkaria eguna ospatuko da, aurten herri honetan. Horretarako jende pilo baten laguntza beharko da, eta jadanik, eskatzen ere hasi dira. Ohi den bezala, taldeengana jo dute, eta askok, egingo ditugu ahaleginak, baina ezin dugu ahaztu, taldeetan ere,

jende aktibo eta partehartzaileen soberakinik ez dagoela, orokorrean oso gutxi garela mugitzen garenok (baita hainbeste diru

mugitzen duen AEDn alajaina) eta herriaren gehiengoa dela, ezertan inplikatzin ez dena, eta etengabe kexatzen ari dena.

Jendea, gaztea bereziki, oso gaizki ohituta dago. Zorionez, jateko nahikoa duenez, bere gogo pertsonalak edo bizioak asetzea da helburu nagusia. Beste guztia, laguntzen duela esan eta aurrera, batere lotsa eta damurik gabe.

Hau da Arrasate, eta ez uste dena. Ikus ditzagun gauzak diren bezala.

IKER BARANDIARAN



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian,

"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Leguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mainer Egües. **Publizitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerme Altube eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautilista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karme Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rofa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Karlos Conde

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Txitxinpe

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HIES EKIMENA

Astehlen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE


Erretaulari buruz

Zuzendari jauna: Esae-
ren hiztegi batean ez dut
uste "kultura" hitzak duen
aberastasuna ezerk gaindi-
tu dezakenik. Aintzinako
pentsalariengandik hasi eta
egunekoetaraino loresorta
ederra egin dute hitz honen
inguruan; zibilizazioaren ter-
mometroa bait da, nahiz eta
norbaizuk alderantziz pen-
tsa nahi. Adibide bezala, hor
doakizu filosofo greziar
batek dioena: "kultura,
herriaren ontzi-gidari da;
kulturari garrantzirik ematen
ez dion herria, zarpail-
du egiten da".

Honek sarrera bezala ser-
bi bekit, zuk zuzentzen
duzun ARRASATE PRESSEKO
272 eta 273 zenbakietan
azaldu zen informazioa
zuzendu edo zehazteko.
Aipaturiko zenbakietan
emandakotzat jotzen zenu-
ten Udaletxearen subent-
zioa, 3.500.000 ptakoa, San
Frantzisko elizako erretau-
la berritzeko. Arrasatearrei
esan beharrean aurkitzen
naiz, zoritxarrez, ez dela
egia. Apirilaren 12ko batzar
nagusian, 1995-96ko aurre-
kontuak onartzerakoan, zine-
gotziek ukatu egin baitzu-
ten subentzio hori. Egunka-
rietatik jakin ahal izan dugu
zinegotzi batzuri, konkretu-
ki HBkoei eta PSEkoei, ez
egokia iruditzen zitzaiela
Udaletxeak eztabaida duen
erakunde bati subentzioa
ematea.

Pentsatzen dut ez dela
Frantziskotar erakundeari
ematen zaion laguntza, nahiz
eta Frantziskotarrak zuzen-
du eliza. Zeresango ote luke
Udaletxe honek Frantzis-
kotarrak erretaulak deslotu
eta kanpora eramaten hasi-
ko balira? Ez. Pentsatzen dut
Arrasateren kultur ondasu-
na dela arte lan polit hau;

Frantziskotarrak herri kide
bezala eta herritar askok ahal
duten neurrian eutsiko dio-
gu ondasun kultural hau de-
seztu ez dadin.

Ezin dut ahaztu herritar
multzo bikain batek berriz-
te lan honetan serioски kon-
prometitu duela poltsikoa;
Udaletxearek zergak ordain-
tzen dizkien herritarrak. Uda-
letxe batek, herri osoaren
ordezkari bada, herriaren
behar zuzeneko adi bizi
behar lukela derizkiot.

Bi erakunderen artean
eztabaida badago, arrazoirik
dutelako izango da auzibi-
dea defendatzeko. Eta epai-
leek erabaki beharko dute,
konponketarik ez badago,
zein aldetan dagoen arra-
zoia. Utzi diezaiogun justi-
ziari lan egiten; eta ez deza-
gun kulturarekin nahastu;
kasu honetan, herriaren kul-
tura eta artezko ondasune-
kin.

Atzetik bultzaka datoz-
kigun belaunaldi gazteak, ia
denak Unibertsitateko kul-
turaz jantziak, ez dut uste,
harro sentituko direnik, urte
gutxi barru, Udaletxearen
joku hain ximurrarekin.

Honek gogora dakarkit,
badira urte batzuk, hortik
zehir nenen batean, herri
bat ikustera joanik, "cicero-
ne"-k, eta alkate zen bera,
esan zidana eliza erakuste-
an: "Guk gure gurasoengandik,
nahiz eta ados ez
egon, jaso ditugun ondasun
hauek ondorengoei helaraz-
teko kapaz ez bagara, ez
dugu errespetorik merezi".
Ez dakit sinestuko didazun,
ez zen elizkoia. Ondoren-
goen epaia onbera izango
ahal dugu! Eta erabaki hau
garai bateko ipuin!

**JOSE LUIS AGIRRETXE.
FRANTZISKOTARRAREN
ARDURADUNA**

**Pasioaren
abenturak**

Arrasatearrok, zer deri-
tatzoe herri polit hone-
tatik paseatzeari? Kontura-
tu al zarete, inoiz, espaloie-
tan dagoen zikinkerri nazka-
garria ez zapaltzeko saltoka
ibili behar dugula?

Egunez zein gauez zure
txakur maitagarriak uzten
dizkiguten arrastoak herriko
dekorazioaren beste zati bat
bihurtu dira. Zenbat txakur-
kaka zabaldu dugu denok
herrian zehar oinetako zikin-
duen bidez?

Zenbat txis-parrastada?
Gure "gaia" zerbait biologi-
koa eta beharrezkoa da, bai,
baina biologi asunto hori
batu eta zakarrantzi bere-
zietara jaurtitzea ez ote li-
tzateke biologikoagoa?

Mesedez, txakurdunok,
kontu handiz ibili, eta abe-
re hauek zaintzeko jartzen
duzuen arreta bera izan herria
eta herritarrak zaintzen eta
errespetatzen. Eskerrik asko.

J.G.

OHARRA


Zure iritziak gure gutu-
nen sailean argitaratu nahi
badituzu, izan itzazu kon-
tutan honako baldintza
hauek: Testua ez dadila 20
lerrotik gorakoa izan.
Sinatzeailaren izena eta
telefonoa adierazi, nahiz
eta argitaratzeko orduan
gaitzizen edo inizileaz
argitaratzea nahi izan.
Kontuan izan identifika-
tu barik datorren gutunik
ez dela argitaratuko.

Arrasaten alkohol asko edaten da?



Angela Gómez Etxekoandrea
(53 urte)

Bai dexente. Nire ustez gizonek emakumeek baino gehiago edaten dute.




Victoriano Guridi Langilea
(34 urte)

Uste dut askotxo edaten dela eta batez ere gazteek. Astebukaeretan goizez irtenez gero jende asko ikusten da edanda. Hori penagarria da.




Angela Agudo Irakaslea
(29 urte)

Ni Bilbotarra naiz eta hona etorri nintzenean konfuratu nintzen tabernak betik beteta egoten zirela eta jende askok poteatzen zuela. Batez ere gizonek.



Enkarni Fuentes Langilea
(24 urte)

Bai eta gainera gero eta jende gazteagoa da asko edaten duena. Astebukaeretan behintzat hori ikusten da.



Manuel Paldo Langilea
(58 urte)

Askota eta nik neuk ere dexente edan izan dut. Ohi-turagatik edo ez dakit zergatik baina hemen asko edaten da.



Mari Jose Beitia Langilea
(41 urte)

Lehen baino gutxiago. Orain gutxiago txikiteatzen da, jendeak kirol gehiago egiten du eta beste bizimodu bat egiten da.



Abilio Saenz Langilea
(40 urte)

Gazteek behintzat asko edaten dutela uste dut. Jendeak gero eta urte gehiago eduki gutxiago edaten du.



Juanito Arriaran Jubilatu
(61 urte)

Ardo ona edan egin behar, hori esaten dute medikuek behintzat. Arrasaten ez dago arazorik alkoholarekin. Normal edaten da.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

comercial san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze gorria

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektzitate (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
-----------------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 5

Egunez eta gauez : Mozas. Bergara.
10ak arte: Ruiz. Maalako Errabala.

Larunbata 6

Egunez eta gauez : Camacho. Bergara.
10ak arte: Morales. San Andres auzoa.

Igandea 7

Egunez eta gauez : Camacho. Bergara.
10ak arte: Azkoaga. Ferrerrias kalea.

Astelehena 8

Egunez eta gauez Puy. Bergara.
10ak arte: Español. Iturriotz kalea.

Astearte 9

Egunez eta gauez: Cuellar. Bergara.
10ak arte: Corcuera. Musakola.

Asteazkena 10

Egunez eta gauez : Estella. Bergara.
10ak arte: Irizar. Erguin kalea.

Osteguna 11

Egunez eta gauez : Mozos. Bergara.
10ak arte: Amezuza. Santamaina.

5 OSTIRALA

• ZINEA

Ez dago emanaldirik.

• KAFE ANTZERKIA

Lourvier's taldearen "Lourvier's saloon" antzezlan Amaiara antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera: 500 pta., gazte txartelarekin 400 pta. Sarrerarekin kafea doan.

IV. ISIDRO XAKE TXAPELKETA BIZKORRA

Maiatzaren 13an Musakolako San Antolin ikastolan arratsaldeko 3.30etan. Izena Txinatu tabernan eman daiteke, Tef: 79 20 95. Zigarrolako festen antolatzaileek antolatuta.

KIROL IKASTAROAK

"Igeriketa ikastaroa" astelehenetik ostiralera. Ordu-tegi desberdinak ume eta helduentzat. "Mantenimenduko gimnasia", astelehenetik ostiralera. Ordu-tegiak goizez zein arratsalde. "Muskulazio gela", ordu-tegia: goizez 10etatik 2etara eta 4.30etatik 9.30etara, larunbatean 9.30etatik 2etara. 65 urtetik gora prezio murriztuak. "Aerobic ikastaroa" astelehen, astearte eta ostiraletan. Ordu-tegia: goizez 9.30etatik 10.30etara, arratsalde 7.45etatik 8.30etara eta 8.30etatik 9.15etara.

6 LARUNBATA

• ZINEA

"Niño rico" arratsaldeko 5etan, "Causa Justa" 7.30etan eta 10etan.

• ALKOHOLIKO ANONIMOEN HITZALDIA

Udaletxeko Pleno aretoan arratsaldeko 7etan.

• BESAIDEREN MENDI ASTEA

Txangoa mendiko bizikletan, goizeko 8etan Kiroldegian. Besaidek antolatuta

• KERMIREN OMENEZKO FESTA

11etan Sebero Altubetik etxafleu jaurtiketa eta trikitilariak. 11.30etan Marinba kolektiboa plazan. Ordu batean "Rebombero malabarista". 5etan antzerkia "ni fu ni fa" Seberon. 6etan "La Funerala" antzezlan "La tirili y pikor" ekin Herriko plazan. 6.30etan "Ekekei" rekin kalejira. 7etan "Todo Bajo Klowntrot" antzezlan Oihulari Klown-ekin Jai Zalen. 7etan "Kaskete Kabarete" Gaztetxean. 8.30etan kalejira.

• TXATXILIPURDIREN LUDOTEKA

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria San Andres auzoko Alkaltetzan izango da goizeko 11etatik ordu batera.

• ABESBATZEN VIII TOPAKETAK

San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta Deba Garaiko Eskolen arteko Abesbatzen VIII topaketak. Amaia Antzokian. Goizeko 11.30eta eta 5etan.

• KAFE ANTZERKIA

Nake taldearen "Pocos y mal avenidos" antzezlan Amaiara antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 500 pta. eta gazte txartelarekin 400 pta. Sarrerarekin kafea doan.

7 IGANDEA

• ZINEA

"Niño rico" 5etan, "Causa Justa" 7.30etan eta 10etan.

• BESAIDEREN MENDI ASTEA

Leintz bailarako 8. itzulia. Itteerra: goizeko 7etan Portaloitik.

• AITZORROTZEKO EGUNA XVII. OTALA-ZELAI HERRI KROSS-A

Edozeinek har dezake parte. Zelaikua baserrian emango zaio hasiera goizeko 11etan eta leku berean bukatuko da 12.30etan. Gizonezko seniorek bi buelta emango dituzte eta junior, beterano eta emakumeek bakarra. Dorsalen banaketa 9.30etatik 10.30etara. Lasterketak Gipuzkoako Herriko Krosseko 4. Challengerako puntuatuko du.



BETERANOEN ARTEKO RUGBY PARTIDUA

Ekainaren 4ean Arrasateko rugby jokalariek beterano eta Bordeleko Archiball Association taldeen arteko partidua. Entrenamenduak ostegun eta martitzenetan arratsaldeko 7etan. Entrenatu barik jokatu nahi duten jokalariek lehen bait lehen emateko izena, 79 61 08 (Agustin), 79 40 00 (Ritxi) telefonoetara dei egin.

8 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Causa justa" 7etan eta 9.30etan.
- **BESAIDEREN MENDI IRTE-ERA**
Diapositiba emanaldia. "Lera zakurren proiektzioa". Emailak: Joseba Iribar eta Gokiki. Arratsaldeko 7etan Monterronen.
- **SAN ISIDRO ELIZAREN 50. URTEURRENA**
Hitzaldia. Gaia: Ebangelizazioa gaur egun. Hizlaria: Jose M Astigarraga. San Isidro elizan arratsaldeko 7.30etan.
- **HITZALDIA BITERI EGOITZAN**
Jose Antonio Maturanak hitzaldia emango du Biteri egoitzako areto nagusian arratsaldeko 18.45etan.



9 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Causa justa" 7etan eta 9.30etan.
- **BESAIDEREN MENDI ASTEA**
Mahai ingurua. Mendi istripuen azterketa. ATBn gaueko 9.30etan.
- **SAN ISIDRO ELIZAREN 50. URTEURRENA**
Hitzaldia. Gaia: Etorkizuneko parrokia. Hizlaria: Jose Antonio Pagola. San Isidro elizan arratsaldeko 7.30etan.
- **MUSAKOLA HERRI ESKOLAKO KULTUR ASTEA**
Goizeko 11etan, 5., 6., 7. eta 8. mailakoentzat diapositiba emanaldia. 3retan ipuin kontalaria.
- **DIAPOSITIBA EMANALDIA**
Felipe Uriarteren eskutik "Alaska" izeneko emanaldia. Biteri egoitzan. Arratsaldeko 7eta.

ERAKUSKETA DIDAKTIKOA

Maiatzaren 5etik 20ra arte "Gorbeia, ingurune ekologikoa" ingurune ekologikoen zabalkundeari buruzko erakusketa didaktikoa Monterronen. Ordutegia: egunero betatik 8ak arte eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta betatik 8ak arte.

10 ASTEAZKENA

- **SAN ISIDRO ELIZAREN 50. URTEURRENA**
Hitzaldia. Gaia: Zigarrolako sustri zaharrak S. Isidro Elizaren oinarri. Hizlaria: Africa Marteache. San Isidro elizan arratsaldeko 7.30etan.
- **BESAIDEREN MENDI ASTEA**
Diapositiba emanaldia. Artzainak eta Peru. Egilea: Gema Arrugaeta. Arratsaldeko 7etan Monterronen.
- **MUSAKOLAKO HERRI ESKOLAKO KULTUR ASTEA**
Goizeko 10etatik aurrera kirolak neska mutilentzat.
- **MAHAINGURUA**
Gaia: Arrasateko Udaleko hizkuntza politika baloratu eta aurreantzean jarraitu beharreko bidea zehaztea. Hizlariak: Arrasateko udaletxera aurkeztuko diren talde politikoetako ordezkariak. Arratsaldeko 7etan, Udaletxeko pleno aretoan. AEDk antolatuta.
- **PIANO KONTZERTUA**
Javier Perez de Azpeitia piano-jolearen kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSA

Maiatzaren 14ean Herri Urrats izango dela eta, autobusa antolatuta du AEDk. Irteera goizeko 8etan Zaldibar pilotalekutik. Prezioa: 1.000 ptakoa da eta joan nahi duten guztiek txartela erosi beharko dute Hire liburudendan eta Iturriotz tabernan. Izena emateko azken eguna maiatzaren 12a.

11 OSTEGUNA

- **ZINE KLUB**
"Lloviendo Piedras" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 300 pta., gazte txartelarekin 250 pta.
- **SAN ISIDRO ELIZAREN 50. URTEURRENA**
Kontzertua Goikobaluren eskutik San Isidro elizan arratsaldeko 7.30etan.
- **MUSAKOLAKO HERRI ESKOLA**
Goizeko 10.30etan Azkona taldearen emanaldia herri eskola eta auzoko eskolentzat. 3retan Karaokea 5., 6., 7. eta 8. mailakoentzat. Arratsaldeko 5etan irakasleentzat hitzaldia. Gaia: "bi urteko umeen adaptazioa Pat".
- **BESAIDEREN MENDI ASTEA**
Diapositiba emanaldia. "Bhagirathi III", 6.454 m. Emalea: Pablo Aldai. Arratsaldeko 7etan Monterronen.
- **ANTZERKIA**
"Molestias Clownicas" antzerkia Oihulari taldearekin Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

BIDAIA DINOSARIOEN RUTARA

La Merced ikastetxeko ikasle ohiek dinosarioen rutara bidaia izango dute maiatzaren 20an. Izena Lore perfumerian eman daiteke.

TANBORRADAN IZENA EMATEA

Tanborradan parte hartu nahi duten neska mutilak eman dezakete izena. Azken eguna maiatzaren 8a. Izena emateko ordutegia: Astelehena, arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara, Pablo Uranga San.

Egunkaria egunerako laguntza bila

Egunkari Jaia aurten Arrasaten egingo denez, Euskaldunon Egunkariako kontseilari ordezkaria, Iñaki Uria, herrian izan zen joan den ostegunean. Uriaren esanetan, "giro urbano eta euskalduneko herria aukeratu nahi izan dugu IV. Jaia ospatzeko. Ekainaren 11ko jairako 400 pertsonen lana beharrezkoa izango da eta horregatik, arrasatearren laguntza eskatu nahi dugu". Egunkariaren egoera ekonomikoa hobetzea eta presentzia bultzatzea izango dira aurteko jaiaren helburuak. Antolakuntzan lagundu nahiez gero, AEDra jotzea besterik ez dago.

Extremadura erakusgai

V. kultur astea burutu dute aste honetan Corazón de Encinakoek. Astean zehar play-back jaialdia, plater tiraketa eta haurren txokolatada izan dira. Monterronen jarri zuten erakusketan, gainera, Extremadurako artisautza eta janariak izan ziren ikusgai.

Irratiaz hitzegiten

Euskal Herriko irratien eraginaz eta etorkizunaz hitzegiten zuen asteazkenean Juan Lekuonak, Herri Irratiko zuzendariak Eskola Politeknikoan.



Trenbide proiektuari buruzko topaketak

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak antolatuta, AHTa mintzagai izan zen Arrasaten joan den aste-bukaeran. Egun mamitsuena zapatua izan zen, hitzaldi eta eztabaiden bidez auziari buruzko iritzi ugari entzuteko parada izan zen eta. Euskal Herriko eta Estatuako jende asko etorri zen topaketetan parte hartzera eta batzuk Udalan antolatu zuten akanpadan egin zuten lo.



RIPEk zuzeneko diska kaleratu du

HIESak jota hil diren lagunak omentzeko, zuzeneko diska kaleratu du Arrasateko punk-rock taldeak. Diska berriari emandako kontzertuetako kantak eta "Enamorado de la muerte" kantaren bertsio akustikoa batzen dira. Lan hone-tatik aterako den diruaren zati bat Arabako Batzorde Hirirarrak jasoko du eta beste parte bat Arrasateko HIES Eki-menak.

Joan zen ostegunean RIPEkoek diskaren aurkezpena egin zuten Gasteizeko Zuloak dendan.

Ekologia mintzagai

Zabor poltsari nolako probetxua atera, zein kalitateko ura edaten dugun eta zaraten ondorioen inguruen hitzaldiak izan dira aste honetan Monterronen. Hitzaldiok Kutxak antolatu ditu, hirugarren adinekoendako. Orain arte Donostian antolatu izan dira hitzaldiok baina orain herrietara iritsi nahi izan dute antolatzaileek.

Hiru eguneko jaiak

Ostiraletik astelehenera bitartean auzoko jaiak burutu ziren San Andresen. Hiru egunetan zehar denetik izan da: dantzaldiak, umeendako ekintzak eta jolasak, futbol partiduak, karate erakusketa... Astelehenean eta urtero moduan, 65 urtetik gorakoendako bazkaria egin zen eta 200 lagun baino gehiagok parte hartu zen. Bazkaria primeran atera zen antolatzaileek egindako lanari esker eta hirugarren adinekoek "gustora" bazkaldu zutela esan zuten.

EZKONTZAK

- Gaizka Otaduy Arana eta Ane Luisa Sanz Segovia. Apirilaren 22an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Carmen Fernandez Fernandez. Apirilaren 24an. 58 urte.

ZUBIZARRETA TAILERRAK


Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Isabel Gallastegi (EA)

Gaztetasuna eta esperientzia

Isabel Gallastegi

Eusko Alkartasunako alkategaia.

Adina: 28 urte.

Ezkondua. Alaba bat du.

Ikasketak: Zuzenbidean lizentziatua

Afizioak: Irakurtzea

– Zer azpimarratuko zenuke EAren programatik?

– Arrasate etorkizuneko herri bat izan dadin lortu nahi dugu eta hori lortzeko, gure programak bi ardatz nagusi izango ditu. Enpleguak sortu asmoz, enpresak herrian gera daitezen eta berriak bultzatzen saiatuko gara eta bestalde, zerbitzu desberdinen kalitatea hobetzen ahalegin-duko gara.

– Zein emaitza lortzea espero duzue?

– Lau edo bost zinegotzi lortuko ditugula uste dut. Ia segurua da lau zinegotzi lortzea baina bostgarrena lortzeko lana egin behar dugu.

– Alkate aukeratuko

bazintuzte zer egingo zenuke berehala?

– Udala barrutik aldatzen saiatuko nintzateke, burokrazia larregi dagoela uste dut eta. Askotan hiritarrek hilabete itxaron behar izaten dute Udaltxean paper bat lortzeko eta hori arindu egin behar da. Arrasate garbiagoa lortzeko pausuak ere emango nituzke.

– Zer da Eusko Alkartasunak eman dezakeena eta beste alderdiek eman ezin dutena?

– Kandidatura gaztea eskaintzen dugu eta hori garrantzitsua da. Gazteek beste griña bat dute eta arazoa

beste modu batean ikusten dute. Horrez gain, esperientziadun lagunekin osatzen dugu EAko taldea.

– Gobernuan dagoen tripartitoak funtziona dezake Arrasaten?

– Adostasun bat egon behar du gobernua osatzeko, inork ez du gehiago absolutua eta. Maiatzaren 28an zein emaitza izango den ikusi behar da hori egiteko.

– Zer iruditzen zaizu oposizioan egotea?

– Askotan uste dugu oposizioan dagoenak ez duela ezer egiten, baina hori egonda ere gauzak egin daitetzke. EAren asmoa hala ere gobernuan egotea da.

– Azken legealdian zinegotzia izan zara, berriz ere izateko gertu?

– Zinegotzi izatea esperientzia ona izan da, edozein herritarri gomendatuko nioke. Zinegotzi izanda herria beste modu baten ikusten da. Beste lau urtez zinegotzi izateko gertu nago.

■ IU-EBk aurkezpena egin

Arrasateko IU-EBk hautagaien eta programaren aurkezpena egin zuen joan zen ostiralean. Aurkezpenean Antxon Karrera, Ezker Batuko Donostiako alkategaia izan zen alderdiaren asmoak zeintzuk diren azaltzeko. Karreraren berbetan, "politika egiteko modu berria aurrera eraman nahi dugu eta horretarako, jendearen parte hartzea ezinbestekoa da". Joseba Ugaldek, Arrasateko alkategaia ere, herritarren parte hartzeak duen garrantzia azpimarratu zuen.

■ PPko hautagaiak

Joan den ostiralean PPko gipuzkoako hautagaien aurkezpena egin zen Donostian. Arrasateko lehen lau hautagaiak honako hauek izango dira: Antonio Palacios, Maria Pilar Elorza, Carmen Madinabeitia eta Miguel Alcalá.

■ Hauteskunde eguna prestatzen

Udalan ere maiatzaren 28a prestatzen ari dira eta dagoeneko botua emateko jarriko diren mahaietan zein arrasatear izango diren jakin da. Guztira 270 lagun egongo dira herrian izango diren hogeitamar mahaietan. Udaltzaingoa, begirale lana egitea tokatu zaien lagun horiei abisua ematen ari da baina oraingoz hogeiri baino ez diete eman. Udaltxean egiten den zozketa bidez aukeratzen da nortzuk egongo diren mahai elektoretan.



Isabel Gallastegi (Eusko Alkartasuna)

Euskal Herria gizarte plurala dela diote, aberatsa bi kultura dituelako, erdaldunena eta euskaldunena, eta euskara guztion ondarea dela. Hori gezurra da: euskara gutxiengo baten ondarea baino ez da, euskaldunona, eta gehiengoa ez da plurala, euskaldunok gara pluralak garen bakarrak. Diskurto hori oso arriskutsua iruditzen zait. Gizarte monolitiko batean bizi gara, osagarri nagusi bakarra duena, gero eta nagusiago dena gainera: erdarazko kultura.

(...) Politikagatik jendea hiltzen dute hemen, eta torturatu ere bai, eta oso larria da hori, baina Euskal Herriaren iraupenaren gakoa ez dago hor, nire ustez behintzat. Gakoa Arabako gatazka linguistiko-ideologiko horretan dago, eta leihatilen aurreko eguneroko borroketan eta antzekoetan. Gatazka linguistiko eta kulturalean beraz. Hemen edozein ekimen, politikarekin kateatzen da berehala, eta politikan ikuspegi kulturala oso jende gutxik du. Politikaren zama astunegitik pixka bat askatzea komeni zaigu, eta horretan saiatu behar genuke nire ustez.

Luis Fernandez, apirilaren 19,

Egunkaria

Aitor diezaiogun elkarri berea, eskubideen mailan bederen; Guk Herri Batasunan, Gasteizko eskuhartze instituzionalari eragozpen gehiegi ikusten diogu eta funtsezko gabezia ugari.

(...) Esperientzia guztietan eta hausnarketa zintzo eta zorrotz batetik Herri Batasunak, ziur nago, aukera egokia egingo du. Jokoan Euskal Herriaren etorkizuna dago; eta hori ez da bermatzen gaurengungo egitura eta instituzioekin. Egia horren gordintasuna beti isladatu beharko da gure jokabidean, geure usteei iruzur egin nahi ez badiegu.


Kontua ez da parte hartu ala ez, zertarako baizik.

Xabier Zubizarreta, 1995eko apirilak 30.

ARGIA

Zer dela eta eratu nahi duzue LAB Langabetuak?

Iaztik funtzionatzen du Bizkaian LAB Langabetuak sailak eta orain Gipuzkoan eratzeko urratsak ematen ari gara. Donostian dagoeneko antolatuta dago eta helburua herrietara iristea denez, Deba Garaiako LAB hori lortzeko pausuak ematen ari da. Oraingoz langabetu batzuekin izan gara, sail berri hori sortzeko nahitaezkoa zaigu-eta euren parte hartzea. Oraindik ez dugu lortu langabetuak inplikaterik baina aurrerantzean ere beste saiakera batzuk egingo ditugu.



Jon Alustiza
LABeko partaidea

Zergatik animatuko nukeen langabezia dagoena sail horretan parte hartzera? Batez ere, nor bere irtenbidea bilatzea nahikoa ez delako; horregatik, langabetuak ere batu egin behar dira. Lantegi askotako funtzionamenduak kalte egiten die langabetuen eskubideei eta horiek salatu egin behar dira. Adibidez, ordu extremen aurka, behin-behineko lanaren aurka eta enplegu osoaren alde borrokatu behar dute langabetuek. Gainera, langabetuek hainbat laguntza izan behar dutela uste dugu LAB-ekook. Langabezia dauden 18 urtetik gorakoek alokairu soziala eduki beharko lukete eta egoera eskaxean bizi direnek nahiz langabetuek, etxebizitza bat izateko eskubidea. Bestalde, langabezia daudenak dohaineko garraioa izatea eta udal tasarik ez ordaintzea lortu nahi dugu. Eskakizun horiek lortzen saiatu behar dira langabetuak eta horregatik animatzen ditugu LAB Langabetuak-en parte hartzera.




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

UNIBERTSITATE ETA ENPRESA MUNDUAREKIN HARREMANETAN PRESTAKUNTZA ONAREN GARANTIA



- Batxilergo orokorra.
- Goi Batxilergoak.
- Lanbide Modulo III.
 - Ekintza soziokulturalak
 - Gorputz eta kirol ekintzak

MATRIKULAZIO
EPEA
Maiatzaren
4tik 18ra



ALMEN
IKASTOLA

K A F E



M A I A T Z A

5ean (ostirala)

**Lourvier's
(Donostia)**

“Lourvier's Saloon”

6an (larunbata)

**Ñake
(Gasteiz)**

“Pocos y mal avenidos”

Laguntzaileak: Auzolagun E. Koop. eta Aterpe taberna

a n t z e r k i a

AMAIA ANTZOKIAN

Gaeko 10.30etan • Sarrera: 500 pta. (Gazte Txartelarekin: 400 pta.). SARRERAREKIN KAFAA DOAN.



Arrasateko
Udala
Kultura Saila

TERMOTESTER



Zelulitiaren prebenziorako
kanpaina



Irudi
uniformea

Leopardo
azalaren
irudia



Ederrago senti zaitez



Gorputzaren
tratamendu
guztietan %10aren
beherapena.
Promozio hau maiatzaren
15a arte baliogarria
izango da.

AMAGARA
Estetika Zentruko gorputzerako
programa berriekin.



Erdiko Kale, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 09 09



* Eukeni Olabarrieta

Maltzaga-Urbina bidegorriari bai

EBBetan, oinez, bizikletaz zein zaldiz edo eskiez ibili etab.-erako erabiltzen diren 500 "rail-trails" edo egokitutako trenbide zahar baino gehiago dago.

Ingalaterra eta Europako beste herrialde batzuetan ere, zaharkitutako eta alde batera utzitako trenbideak guztionak izan daitezten eta motorrik behar ez duten ibilgailuak erabil ditzaten, programa ausartak daude.

Estatuan ere, Ingurugiro, Garraio eta Obra Publikoetako Ministeritza, Sare Berdea programaren bidez, azken urteetan indartzen ari da azpiegitura linealean berreskurapen eta egokitzapena, trenbide zaharrak barne. Era horretan oinezko zein bizikleta zaleentzat erabilgarri utzearekin batera, turismoa

bultzatu, herrien garapenaren alde egin, eta inguruneari kalterik egingo ez dioten aisialdirako aukera berriak eskaintzen dira.

Hemen, gure artean, Eusko Jaurlaritzak -iazko NIPetan sortutako emaitzen azterketa egin ondoren- 55 kilometroko "Maltzaga-Urbina" bidegorriaren eraikuntza iragarri du, ahal den neurrian aintzinako "vasco-navarro" trenbideari jarraituz. Ados gaude eta nahi ere horrela nahi dugu. Egiten bada, gure bai-

.....
"Bide gorria... egiten den edozein konparazio motan merkea baino merkeagoa da"

lararako abantailak besterik ez ditu ekarriko: mugikortasun gehiago eta batetik bestera joateko erraztasun gehiago (herrien arteko distantzia egokia da bizikletaz zein oinez egiteko), garraio osasuntsu eta bigunen indartzea, istripuen arriskua gutxitzea... egiten den edozein konparazio motan merkea baino merkeagoa izanik gainera.

Mondragoetik Aretxabaleta, Eskoriatza, Landa, Bergara, Oñati, etabarrera bizikletaz edo oinez joatea eta bertatik bueltatzea ez da izan behar, gaur egun bezala, motordun ibilgailuekin batera errepidera jotzera ausartzen dira gazte edo kirolariendako gordetzen den zerbait. Aukera hori guztien esku egon behar den zerbait da. Aukera horretaz erosotasun eta segurtasunez baliatzea, ibilaldiaz disfrutatuz, etenik gabe, egia izango da errepidetik aparte bidegorri bat egiten bada, aisialdia aprobetxatu nahi dutenentzat bakarrik.

Espero dezagun bada, ahalik eta epe laburrenean, agindutakoa errealitate bihurtu dadila.

* LURRATS ELKARTEKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

ALKOHOLEMIAZ

Inguruetako auzo eta herrietako jaien artean lehen txanpan izaten dira Bergarako Labegaraieta, Oñatiko Olabarrieta, Legazpia edo eta San Andres bertakoak. Jaiak iritsi eta, berehala etorri zaizkit alkoholemia kontrolen inguruko notiziak.

Lasai daitezela berriemateak, interesgarriak diren arren, ez baitut gertaerak aipatzeko asmorik. Alkoholemia kontrolak dira gaurko nire hizpide, kontrolen kokapena hobe esan. Ez da denbora asko Bergarako jaietan egonda, etxera nindoala, ia Antzuolara iristerakoan alkoholemia kontrol batekin topo egin nuela. Pasa den asteburuan antzekorik entzun dut: Legazpian jaiak, kontrola ia Zumarragan; Bergarako Labegaraietan jaiak, kontrola Mekolalden.

Prebentiboak badiara, zergatik ez dira kontrol horiek jai-guneetatik gertu jartzen?

Bergarako jaietako hartan, horma edo zuhaitzen bat jotzeko arriskua izan banu aukera ugari eskaini zidaten Antzuolara arteko 4 kilometrotan.

BEÑARDO KORTABARRIA

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegilkorra

ARRASATE



Adin guztiko lagunek parte hartzen dute Alkoholiko Anonimo taldean.

20 urte bete ditu Arrasateko Alkoholiko Anonimo taldeak

Bihar, larunbata, hogeitau urte beteko dira herrian Alkoholiko Anonimo taldea antolatuta zela. Urte guzti hauetan alkoholaren menpe izan diren arrasatear askok jaso du taldearen laguntza, baina beti ere, alkoholikoak laguntza eskatu duenean. Izan ere taldean sartzeko lehen baldintza alkoholiko izatea aitorzea da eta bertan dauden lagunen anonimata gordetzeko konpromezua adieraztea.

Alkoholikoen taldea ez dute mediku edo espezialistek zuzentzen, alkoholarekin arazoa dutenek baizik eta ez dira hortik kanpo daudenei laguntza emateaz arduratzen. Egun, Arrasateko taldean hogeitamar lagunek jarraitzen dute terapia. Gehienak gizonetakoak dira baina badira zortzi bat emakume ere. Bertako partaide baten esanetan, "emakume askok arazoak ditu alkoholarekin baina andre gehienek etxean edaten dute eta gehiago kostatzen zaie taldera hurbiltzea". Jende gaztea ere hurbiltzen omen da talde-
ra: "gazteek uste dute astebukaeretan bakarrik edanez gero ez dela ezer pasatzen, bai-

na alkoholikoa izateko ez dago egunero edan beharrik. Trago bat hartu eta "nahikoa da" esateko gaitasuna ez duenak, alkoholarekin arazoa".

Arrasateko taldea martitzeno biltzen da eta bertan partaideek alkoholaren ondorioz izandako arazoak eta gorabeherak kontatzen dituzte. Terapiak hamabi puntu ditu eta batz bestea bi urte behar izaten dira programa amaitzeko. Astean behin bilduta nahikoa ez dela uste dutenek gainera, inguruko herrietako taldeetara joateko aukera izaten dute gainontzeko egunetan, "Norberak bere buruarengan segurtasuna duela ikusten duenean utz daiten taldea, baina inoiz ezin dugu ahaztu alkoholikoak izan garena eta noizean behin terapiara itzultzea komeni dela". Dauden datuen arabera gutxi gorabehera taldean parte hartzen duen %80a errekuperatu egiten da.

20. urteurrena dela eta, larunbatean arratsaldeko 7etan hitzaldia izango da Arrasateko Udaletxean. Taldeko partaideak arituko dira hizlari.

Euskal abizenak, euskal grafiaz

Gaztelera idazten diren euskal abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina hasi du AEDk. Kanpainako arduradunen esanetan, "aldaketa egiteko jarraituko dugun bidea guztiz legala da". Norberak bere kasa aldaketa egin dezakeen arren, leku desberdinetara jo behar izaten da eta norberarendako lana astuna bihurtzen da. AEDren bidez abizena euskal grafia aldatu nahi dutenek, nortasun agiriaren fotokopia eraman beharko dute AEDra eta 500 pezetaren truke eurek egingo dute gutzia.

"Abizenak ez dira itzuliko, euskal grafia aldatuko dira eta hori nola egin Euskaltzaindiak esango digu" adierazi zuten arduradunek. Izan ere abizen batzuk ez dute aldaketarik eskatuko baina, adibidez, b edo p aurrean m agertzen den kasuetan euskaraz n-rekin idatzi beharko da (Aramburu=Aranburu) eta ch-rekin idatzita ageri direnetan tx, tz edo ts-rekin (Echave=Etxabe). Abizena euskal grafia aldatu nahi dutenek AEDra jo beharko dute arratsaldeko 6etatik 8etara.

Korrika eskerrak emanez

Arrasateko Korrika Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie kilometroak erosi eta Korrikan parte hartu zuten guztiei. Guztira 23 elkarte, lantegi, talde nahiz ikastetxek erosi zuten kilometroren bat.

PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

MAIATZAN
solariumerako
eskaintza berezia.
10 sesio=11.000 pta
eta bat doan!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE

Lan munduan sartuz joateko ikastaroak aukeran

Deba Garaiko Mankomunitateak INEMekin elkarlanean, hainbat ikastaro antolatu du langabezia dauden gazteak lan munduan sartuz joan daitezzen.

Urtero moduan, lanbide hastapeneko ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute Deba Garaian bizi diren 16 urtetik 18 urte arteko gazteak. Eskolan jarraitu nahi ez duten gazteei lanbide desberdinetan aritzeko eta prestatzeko aukera ematea da ikastaroen helburua eta dagoeneko matrikulazio epea zabalik dago. Dani Larrea, Lanbide Hastapeneko arduradunaren berbetan, "94-95 ikasturtean 90 ikaslek parte hartu dute eta hurrengo ikasturtean ere aurrekoan bezain beste ikasle hartuko dira".



Langabetuendako ikastaroak antolatu ditu Deba Garaiko Mankomunitateak.

Lanbide Hastapenean bi aukera izango dira: batetik, elektrizitatea, aroztegia eta mekanika ikastea edo bestela, sukaldaritza, artisautza eta ofima-

tika ikastea.

Horrez gain, lantegi eskolaren hirugarren proiektua izango dena hasiko da aurtten. 18 eta 25 urte bitarteko


gazteei bi urtetan zehar igeltsiritza, iturgintza, elektrizitatea eta zurgintza ikasteko aukera emango zaie. Eskola horiek Arrasateko Zaldibar ikastetxean emango dira.

Emakumeendako gainera, nekazalturismoan, lora-zaintzan eta sare lokaletan urratsak emateko ikastaroa prestatu ditu Mankomunitateak eta ikastaroak Oñatin emango dira.

Bergarako Udala eta bertako eskola elementala bestalde, 18 urtetik gorako langabetuendako ikastaroak prestatzen ari dira eta bi urtetan 46 ikastaro desberdin ematea da asmoa.

Informazio gehiago nahi izanez gero jo Deba Garaiko Udaletako enplegu teknikariengana.

"EZ DUZU EZER HOBETO IKUSIKO"



VARILUX LENTE PROGRESIBOAK

HURBILEKO NAHIZ URRUNEKO, IKUSMEN EZINOBEA

Lente progresiboetako teknologia aitzindaria espezialista onenek zeuri egokitua.

Zure ikusmena edozein distantziara ezinobeia izateko.

Berme onenarekin. Aitzindariarenarekin. Varilux. Ez duzu ezer hobeto ikusiko.



90 egunetaraingo geroratutako ordainketa-sistema, errekar gurik gabea, gure kreditu-txartel bereziarekin.



Gainera, txartelik gabe ere zure erosketak 30, 60 edo 90 egunetara ordain ditzakezu errekar gurik gabe.

BERMEAREKIN:

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA



Santa Barbara parkean bizilagun berriak ditugu. Joan zen astean Santanderko Santillana herritik lau paurma ekarri zituzten, bi eme eta bi ar. Hegazti koloretz hauek benetan ikusgarriak dira. Beraz, gertutik ezagutzeko gogoia baduzue Santa Barbaratik bueltatxo bat ematea baino ez duzue.



Masi Madinabeitia San Andresko herri eskolan 25 urtetan sukaldari lanak bete ondoren, jubilatuta egin da, eta joan zen ostegunean azken bazkaria prestatu zuen eskolan. Egun berezia izan zen berarentzat horrenbeste urte sukaldari lanetan egon eta gero, penaz utzi du herri eskola baina pozik era berean, urte onak pasa dituelako. Jende oso jatorra ezagutu duela esan digu. Batek baino gehiagok faltan botako du Masiren bazkari goxoa.



San Frantzisko Xabier eskolako lau ikasleek **"Baitz Barrez lehertu"** ETBko saioan hartu zuten parte eta irabazi egin zuten. Zurine Lasa, Ainhoa Zenigaonandia, Jon Olaziregi eta Iraitz Malas-

Etxebarria izan ziren protagonistak. Opari asko jaso zuten eta ikastolarako telebista eta bideoa. Txiste kontalari aparta hauek horrela jarraitzen badute etorkizuna ziurtatuta daukate. Bai horixe!



Errukane Aperribai bere ahizpa **Leire** bisitatzeko Suitzatan izan da Aste Santuan. Leire Psikologiako 3. kurtsoa egiten ari da Lözarn herrian. Herri horretan Europako zubirik zaharrena dago eta argazkian Errukane eta Leire zubi horretan agertzen dira. Zubia duela 5 urte erre egin zen eta berri-
tu egin dute.

“Hizkuntzak ikasteko tokirik aproposena”

1.- Zeintzuk dira zuek antolatutako ekintzen helburuak?

Gure ustez, ingelesa ikasi nahi bada, bertako girora hurbiltzea da biderik zuzenena. Ingeles maila hobetuz gain, neska/mutilek bertako errealitatean hizkuntza praktikatzeko aukera ezin hobea dute.

Gainera oso egokia ikusten dugu gaztearen hezkuntzan nazionalitate ezberdineko jendea, herrialde, ohitura eta kultura berriak ezagutzea.

2.- Ze motako ekintzak antolatzen dituzue?

Jende guztiari zuzenduta daude gure ekintzak.

10-15 urte bitartekoentzat udalekuak antolatu ditugu Brinkolan. Ingelesa ikastearekin batera ondo pasatzeko aukera oso ona da.

14-18 urte bitartekoentzat ingeleseko ikastaro trinkoak prestatu ditugu Worcester-en (Ingalaterran), Galway-n (Irlandan) eta Denver-en (Coloradon (EE.BB)).

Honetaz gain,



ikasketa orduak nahi ez dituztenek familiekin egonaldiak egiteko aukera ere badute. Kasu honetan, familia batekin bizitzeko aukera izango dute, klase ordurik gabe.

17-18 urte bitartekoek lan esperientzia eduki dezakete Worcester-en (Ingalaterran). Horrela, ingelesa ikasteaz gain lan munduarekin lehen kontaktua edukitzeko

aukera izango dute.

Bukatzeke, 18 urtetik gorakoentzat ingeleseko ikastaroak egingo dira Dublin-en, Galway-n, Denver-en, Londres-en eta Omahan.

Enpresa munduan sartuta daudenez ere badugu beste aukera bat, enpresa munduarekin erlazionatua dagoen ingeles “berezia” ikastekoa hain zuzen ere.

Guzti hau ingelesari dagokionez. Dena dela, beste hizkuntza batzuen inguruan sortzen diren eskakizun pertsonalez ere arduratzen gara, eskakizun bakoitzari erantzun egoki bat emanez. Beraz, norbaitek beste hizkuntzaren bat praktikatzeko asmoa badu, gurekin harremanetan jar daiteke.

3.- Zein eritzi duzue ekintza hauetaz?

Oso positiboak direla uste dugu, ingelesa ikasi eta lagun berriak egiteko aukera aproposa. Etxeko betiko girotik irtetzea bakoitzaren nortasuna garatzeko oso egokia da, era berean heltzen eta mundura zabaltzen laguntzen du.

Bukatzeke, ez da ahaztu behar gaur egun hizkuntzak jakiteak duen garrantzia: irakurtzeko, harremanetarako, bidaiatzeko eta edozein lanpostu aurkitzeko. Arrazoi guzti hauek horrelako ekintzak antolatzeraz bultzatzen gaituzte.




HIZKUNTZAK-IDIOMAS

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: Tfnoa: 79 65 54

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE



OPEL CORSA



230.000 pta.rainoko beherapena

OPEL ASTRA



290.000 pta.rainoko beherapena

OPEL VECTRA



507.000 pta.rainoko beherapena

Aukera guztietan "Renove" plangintza barne.

ZURE ZAIN GAUDE OPEL 

TAKOLO
A U T O A K

Araba Etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)
Tfnoa: 79 05 86 **ARRASATE**
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEN

TALLERES
OLA

Olabarrena auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46.
BERGARA (Gipuzkoa)

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENA

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAR
ZALDIBAR
ZALDIBAR

Babesleak: JMFA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Zaldibar txapelketa hirugarren fasera iritsi da

Bigarren faseko azken jardunaldia jokatu zen joan zen asteburuan. Emozioz betetako jardunaldia izan zen eta talde batzuek erabakiorra, 3. faseko txartela zegoen jokuan eta. Irati STS eta AC Surcosek elkarren kontra jokatu zuten, Iratik 4 eta 3 irabazi zuten, uste baino larritasun gehiago pasa ondoren. Bukatzeko 10 minutu faltan, Iratik 3 eta 1 galtzen zuten baina tarte horretan erreakzionatu eta hurrengo fasera pasatzeko txartela eskuratu zuten. Pub People eta Sokoakoak arteko partiduan Sokoakoak ere 6 eta 4

irabazi zuten; garaipenak hurrengo faserako txartela eman dio taldeari. Totem eta Petrolerosek E taldeko 4. postua zuten jokoan eta Totemek maila ona erakutsiz 7 eta 2 irabazi zion.

Bigarren fasean Argi Ibili izan da norgehiagoka denak irabazi duen talde bakarra, 7 partiduetatik zazpi irabazi eta gero, 14 punturekin bukatu du bigarren fasea. Bestalde, bigarren faseko azken jardunaldian Orlando Piratasek sartu ditu gol gehien, 13 eta 1 irabazi zion Pepelus taldeari.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuakUribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94
"EDERTU"
ileapaindegia eta solariuma


San Andres auzoa Tfnoa: 79 04 28

CARMEN
Ileapaindegia
Ferrerias, 50
LOKAL BERRIA!
Tfnoa: 79 03 63

Bigarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	7	7	0	0	47	10	14
PERRAHOTSA	7	5	1	1	26	17	11
EQUUS BTR	7	3	2	2	33	31	8
ORLANDO PIRATAS	7	4	0	3	34	24	8
ARTZANKOS UDALAITZ	7	2	2	3	29	33	6
HIREI	7	1	1	5	26	49	3
LOS DIMY	7	0	3	4	19	27	3
PEPELUS	7	0	3	4	17	40	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	7	4	1	2	30	26	9
LOS HEREDIA	7	3	2	2	34	28	9
AC SURCOS	7	4	0	3	43	20	8
SOKOAKOAK	7	4	0	3	30	31	8
PUB PEOPLE	7	3	2	2	28	35	8
D. A IRIZTU	7	3	1	3	27	40	7
LORATEGI POTROAK	7	2	1	4	27	31	5
MSM INGENIER	7	1	1	5	22	30	3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	7	6	0	1	35	12	12
CERV LEINTZ	7	5	1	1	32	18	11
FOSFOROS	7	5	1	1	42	15	11
TOTEM	7	3	1	3	25	19	7
PETROLEROS	7	3	1	3	24	25	7
OJO VISORE	7	1	1	5	21	38	3
NUEBO TABERNA	7	1	1	5	19	37	3
BUKANAK	7	1	0	6	20	54	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA HAIZEA	7	5	2	0	20	8	12
SUM UGARTE	7	5	1	1	32	10	11
TRIKITI	7	4	2	1	22	9	10
MIKELOS	7	4	1	2	19	11	9
ZOTZ	7	1	2	4	15	16	4
GANBELAS	7	2	0	5	9	29	4
KE OXTIAS	7	1	1	5	12	28	3
AUTOS MURU	7	1	1	5	8	26	3

Uribe auzoako Futbito Txapelketa

A Taldea

Leya	10
Ex Lete	10
A Las 9 No	8
Berza Mutante II	8
Munaf Txiki	7
La Banda	7
Energizer	4
Borrock'n Roll	3
DICB	2
Holokaustro Kanibal	1
CD Arko	0

B Taldea

Arrasate Kirolak	11
Jotakabau	10
Blackburn	9
Tronkoteak	8
Trotabares	6
Eztanda egin arte	6
Los Intocables	4
Baneuko	3
Pier Nodoyuna	2
Amaral	1
Orkatz	0

D taldea

Uglys Txinato	11
Equus BTR	8
Ke Oxtias	7
Balon Rojo	7
Los Dimy	6
Zigarrola GT	6
No Comment	5
Arrasate Zoo	4
Astoen Bila	3
Garajauke	1
Eman Bidea	0

E taldea

Kamasutra	10
The Barrio	10
Koka Juniors	9
Borrock'n Roll Prom	8
Dribling	7
Hirei	6
Ganbelas	4
Extintors Foruen	4
Telleria A Eskola	2
Lo + X	0
Kurtze Txiki	0

F taldea

Salenco y konpa	11
Lautherbrunnen	9
Bodega Anboto	9
Txeyenex	7
Gallinero	7
Iluna Taberna	4
Berango sukaldeak	4
Corazon de Encina	4
Sukar	4
Elisabeth	3
Euskal Suporters	0

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena lehioetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

URIBE AUZOKO EMAITZAK

A Taldea

Borroch 'n Roll 4 - Munar Txiki 7
 Holokaustro Kanibal 4 - Ex Lete 8
 La Banda 14 - CD Arko 4
 Leya 3 - A Las 9 No 2
 Energizer 6 - DKB 2

B Taldea

Arrasate Kirolak 15 - Ls Intocales 1
 Eztanda egin arte 4 - Jotakabau 2
 Blackburn 14 - Trotabares 0
 Baneuko 4 - Tronkoteak 1
 Amaral 2 - Pier Nodoyuna 3

D Taldea

Uglys Txinato 8 - Garajauke 2
 Ke Oxtias 4 - Astoen Billa 4
 Zigarrola - Equis BTR 8
 Balon Rojo 4 - Arrasate Zoo 1
 No Comment 3 - Los Dimy 1

E Taldea

Borroch 'N Roll Prom 5 - Hirei 2
 Kamasutra 10 - Kurtze Txiki 2
 The Barrio 6 - Koka Juniors 2
 Extintors 7 - Lo + X 6
 Ganbelas 4 - Dribling 5

F Taldea

Corazon De Encina 1 - Sukar 4
 Gallinero 3 - Salenko Y Konpa 10
 Txeyenex 5 - Iluna Taberna 2
 Berango Sukaleak 2 - Bodega Anboto 3
 Euskal Suporters 1 - Elisabeth 4

BELARRIRA

◆ **Atetik atera gola.**

Irati STS eta AC surcos arteko partidua 4 eta 3 bukatu zen Iratiren alde. Baina AC Surcos taldeko atezainak ate batetik bestera gol ederra sartu zuen. Ez da Zaldibar txapelketan atezain batek sartzen duen lehen gola.

◆ **Epaileekin arazorik ez.**

Azken jardunaldian ez da arazorik izan epaileekin. Taldeek ondo erantzun dute eta epaileek ez dute buru-hausterik izan. Arazoa konpontzen ari dela dirudi. Ea bada horrela den!

◆ **Golak.** Uribe Auzoa txapelketan 223 gol sartu dira jardunaldi honetan. A taldea 54 golekin izan da goleatzailena. E taldean 49 gol sartu dituzte, B taldean 46, D taldean 39 eta F taldean 35 gol. Zaldibar Txapelketan, berriz, 133 gol sartu dira. Gol gehien Orlando Piratasek sartu ditu 13 guztira.

ZALDIBARKO EMAITZAK

A Taldea

Argi Ibili 8 - Equis BTR 1
 Los Dimy 2 - Perrahotsa 4
 Orlando Piratas 13 - Pepelus 1
 Artzankos Udalaiz 7 - Hirei 5

B Taldea

Irati sts 4 - AC Surcos 3
 Pub People 4 - Sokoakoak 6
 MSM Ingenier 4 - D. A Iriztu 6
 Lorategi Potroak 8 - Los Heredia 3

D Taldea

Nuevo Taberna 2 - Fosforos 7
 Totem 7 - Petroleros 2
 Zuloak 9 - Bukanak 0
 Ojo Avisore 4 - Cer Leintz 6

E taldea

Adelaida Haizea 2 - Sum Ugarte 1
 Ganbelas 4 - Ke Oxtias 1
 Trikiti 3 - Autoz Muru 1
 Zotz 0 - Mikelos 1

egizabal



**oinetakoak
 poltsak**

**Ferrerias, 9
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 66 01**

ASTEBURU HONETAN

Zaldibar

Larunbata 6

11.00 Irati STS - Orlando Piratas
 12.00 Los Heredia - Fosforos
 13.00 Perrahotsa - AC Surcos

Zaldibar

Igandea 7

10.00 Zuloak - Sokoakoak
 11.00 Sum. Ugarte - Equus BTR
 12.00 Cerve. Leintz - Trikiti.



Datozen faseetako arauak finkatuta

Hirugarren fasea hasiko da datorren asteburuan Zaldibarren. Talde bakoitza osatzen duten lau taldeetatik bi lehenak final- laurdenetarako sailkatuko dira. Partidu guztiak partidu bakarreko kanporaketak izango dira. Partidu bukaeran berdinketa nagusituko balitz gehienez 10 minutuko iraupena izango lukeen luzapena jokatuko litzateke. Bukaeran berdinketak jarraituko balu, penalti jaurtiketetan erabakiko litzateke talde irabazlea. Finalerdiak galtzen dituzten taldeek 3 eta 4. postua erabakiko duen partidua jokatuko dute. Epai-leak antolatzaileek ezarriko dituzte partidu guztietan final erdian eta finalean ezik, azken bi haueetan taldeek aukeratuko dituzte eta. Taldeek epailea aukeratzeko orduan akordio batera helduko ez balira, antolakuntzak hartuko luke erabaki hori.



**Haurdun
 dauden
 neskontzat
 egun-
 eguneko
 moda**



**Udaberriko
 moda
 gaztea,
 taila
 bereziak
 barne**

Laura

**Erdiko kale, 30
 Tfnoa: 79 05 80
 ARRASATE**

E.T.E.O. ENPRESA ESKOLA


**Bailara hone-
tan ezaguna den
ETEoko zuzen-
dari berria den
Jose Luis Abaun-
zekin elkarrizke-
tatxo bat egite-
ko aukera dugu.**

**- Jose Luis
esaiguzu zer den
ETEO**

- ETEO, Hezibi-
de Elkarte talde
Hezitzaile barnean
kokatuta dagoen
gizarte inizatiba
duen zentroa da.
Orain dela 35 urte
sortu zen eta Admi-
nistrari, Informatika
eta Marketing
ematen dituen
eskola bat da.
Bertan ikasketa
unibertsitarioak
ditugu eta baita
ikasketa ertainak
ere.

**- Ikasketa
ertainetan zer
ematen duzue?**

- Hemen hiru
ikasketa mota
ditugu:
Alde batetik "
Administrazio eta
Gestiozko Goi
Batxillergoa". Hori



egitera REM letik
etortzen dira, eta
batez ere Enpresaria-
lak, Ekonomikak edo
Zuzenbidea egin
nahi dutenak etor-
tzen dira maila
honetara .

Bestetik " Gestio
programatzailea III"
modulua. Urte bete-
ko iraupena du eta
enpresetan praktikak
egiteko helburua du.

Eta azkenik "
Lanbide Heziketa II.
maila ". Ikasketa
hauek egitera REM
letik, REM IItik, COU-
tik edo BUPetik

etortzen dira.

Esan behar dugu
ikasketa hauetan
maila ona ateratzen
ari garela.

Eskolan bertan
ditugu unibertsitari
ikasketetan, aterat-
zen dituzten emait-
zak, batz bestea
media baino hobek
dira.

**- Eta unibertsit-
ari ikasketetan
zer?**

- Hemen enpresa-
rialak ditugu. Goi
ikasketak dira, eta hiru
espezialitate ematen

ditugu: Marketing,
Finantzak eta Infor-
matika. Esan deza-
gun lizentziatura
ateratzera gero
Bilbora joaten direla
eta batzuk baita
Manchester, Birmin-
gan eta Stadfforde-
ko unibertsitateetara
masterra egitera
ere.

**- Seguru asko
aurreinskripzio-
ak hasita egon-
go dira ezta?**

Beno ertainetan
Maiatzaren 4tik
18ra da eta Enpre-
sarialetan berriz
Maiatzaren 22tik
Ekainaren 23ra
izango da.

**- Ikastetxea
handitzen ari
zaretela ikusi
dugu**

- Bai, kalitatezko
ikasketak emateko
baliabideak derri-
gorrezkoak dira.
Horregatik eta
masifikatu gabeko
klaseak ez izateko
ikastetxea handi-
tzen hasi ginen, 40
ikaslenguruko
talde txikiak osatze-
ko.

OHoko 8. maila amaitzear zauden gazte hori, adi: ETORKIZUNA, ZUREKIN, EUSKARAZ DATOR!!



Despistatu gabe.....eskolan eta kalean

Euskaraz hazi, hezi eta bizi!

OHO bukatzerakoan mundu berri bat zabaltzen zaizu. Zure etorkizunerako erabaki garrantzitsu baten aurrean zaudenez, ondo pentsatu, baina,... orain arte bezala, zure geroa eta euskararena ziurtatzeko, **EUSKARAZ IKASTEN JARRAITZEKO** zalantzarik ez izan.

Hurrengo kurtsoan ez duzu erdibiderik, erdaraz (A ereduan) edo euskaraz (D ereduan) ikasiko duzu. Matrikula zaitetz euskaraz, matrikula zaitetz D ereduan. **EZ DESPISTATU**, egin ezazu euskararen eta zure **ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTUA!**



Arrasateko Udala



Arrasate Euskaldun Dezagun

● *Emilio Lopez Adan*

Abiadura Handiko Trenaren aurka

Abiadura Handiko Trenaren aurkako topaketen barruan "Garapena eta askatasuna" izenburuko hitzaldia eskaini zuen Emilio Lopez Adan "Bel-tza" k. Iparraldean bizi den sendagile gasteztarrak honelako proiektu erraldoien aurka egoteko berak dituen arrazoiak azaldu zituen.

- Zer iruditzen zaizu Trenaren proiektua?

- Astakeria bat. Garapena aipatzen da, eta garapenaz hitzegiterakoan, horrek jende arruntari eta jende arruntaren bizitzari eta eguneroko askatasunari zer ekartzen dion ikusi behar da. Hori bada gauzak neurtzeko hipside nagusia, bistan da honelako lan haundiak orohar ez daudela batere horrela orientatuta.

- Azkenean ez litzateke garapena izango beraz...

- Garapena bada, baina garapen ekonomikoa. Helburu nagusia oraingo sistemaren iraupena eta erreprodukzioa da, sistema ierarkikoa iraunaraztea.

- Ez dakar hobekuntzarik gizartearentzat?

- Azaletik eta abstraktoan begiratuta, bai, bidaiatzeko denbora gutxiago behar da eta. Sakonera begiratuta, ikusten

da lan haundiek sistemaren erreprodukzioan oso eginkizun handia dutela, aberatsak gero eta aberatsago bihurtzen dituzten moduan pobreak gero eta pobreak eta izorratuago egiten dituztelako.

- Egin daiteke zerbait horri aurre egiteko?


- Euskal Herrian aspalditik normala da injustiziaren aurkako borroka... baliabideak jarri behar dira proiektu horiek guztiak izorratzen dituen jendea biltzeko, askatasun zaleak bildu eta behar den presioa egiteko.

- Emilio Lopez Adán, ginekologoa, idazlea, borrokalaria, euskalzalea, hizlaria... zer zaitugu?

- Ginekologoa naiz eta horretan dihardut. Idatzi ere, asko idazten dut, urtean, bataz beste, 20/40 artikulua argitaratzen ditut euskal prentsan. Gertatzen dena zera da: idazten dudana euskaraz idazten dudala eta ondorioz oso irakurle gutxi dudala. Niretzat zerbait idaztea betiko lana da.

- Zure biografia begiratzekoan, entziklopedia batean, besteak beste hau irakur daitete: "pentsalari libertario nagusi da gaur egun".

- Ez dut horrelakorik iku-



si, baina beno. Abertzale naiz eta libertarioa ere bai, biak batera, eta horrek sortu dit egoera berezi bat, zeren ni guztiz abertzalea bainaiz, baina aspaldian egon naiz euskaldun estatuaren kontra eta horrek giro abertzalean sortzen ditu gaizki ulertu batzuk. Abertzale gara, euskaldun moduan zapalduak garen neurrian eta zapalduak garelako gara abertzale.

Egunen batean Euskadik askatasuna lortzen badu eta inoiz sortzen bada euskal estatu bat, eta estatu horrek estatuaren politika nazionalista badarama, ni ez naiz batere nazionalista izango, euskalduna izango naiz eta kitto.

Bi gauzak elkarrekin eramatea uste dut posible dela eta gaur egun joera libertario hori badagoela.

- 1993a arte ETAko partaide ere izan zinen, nola ikusten duzu gaur egun ETA?

- Ezin dut ETArri buruz gauza gehiegi esan, ez baitut gaur egungo bere egoera ezagutzen. Orokorrean esanda, ni ez nago aspaldi ETAk darman estrategiarekin ados, uste dut ETAk duen lehentasunak kalte egiten diola mugimenduaren iraupenari, ez baita egokia helburu politikorik lortzeko.

- Eta Estatu espainarraren jarrera?

- Estatu espainiarra eta Gasteizko bere sukurtsalak erreprosiorearen bidez eta gizartea harrotuz aldarrikatzen dute irabazi egingo dutela, eta ez dute negoziaketa egiteko inolako asmorik. Inoiz negoziatzen bada, gobernuan jakin beharko lukete erreprosiorearen bidez ez dutela mugimendua menperatuko. Barrikadaren bi aldeetara begira, oraindik ere Estatuaren kontra nengoke, ez ditut biak parekatzen, Estatu eta ETA.

● **“Abertzale naiz eta libertarioa ere bai, biak batera, eta horrek sortu dit egoera berezi bat...”**

Sentsazio berrien bila

Itxaro Zubillaga

Txoriak bezala hegan egiteko gogoa izan du betidanik gizakiak, eta hegan egitea zer den ondo baino hobeto dakite Ikarus taldekoek. Arrasateko Parapente eta Delta hegoen elkarrean 21 federatu daude. Lagun hauek guztiek biezugarri dituzte amankomunean: mendia gustoko eta hegan egiteko grina barne barnean. Lau urte pasa dira Ana Diaz eta Iñaki Irazola Ikarus taldeko partaideek Parapentean lehen saltoa eman zutenetik, denbora luze honetan era guztietako anekdotak izan dituzte.

Kuriositateak bultzatuta, Iñakik eta Anak hegan egiterakoan zer sentitzen den gertutik ezagutzeko gogoarekin Oñatin egin zuten parapente lehen ikastaroa. "Sokaz gidatutako oihal batekin mendi tontor batetik salto egitea erakargarria iruditzen zitzaigun eta etxetik gertu, Oñatin, parapente ikastaroa zegoela jakitean arrasatear dexente animatu ginen".

LEHEN SALTOAREN SENTSAZIOA

Oñatiko ikastaroan klase teorikoak eta praktikoak

hartu zituzten. Hasieran teoriak garrantzi handia du, izan ere, medio guztiz berria da gizakiarentzat eta tresnarekin mendi tontorrera joan baino lehen zenbait gauza ikasi behar da. Praktikako lehen ariketak zelai aldapatsu batean egiten dira. Ana eta Iñakik ondo gogoratzen dute parapentea gorputzean jarri zuten lehen eguna, "Egia esateko ez geunden beldurtuta, zelaian ariketak egiten ari ginela metro batzuk gorantz joan eta sentsazio berezia izan genuen. Metro gutxi hartu genuen baina guretzat ikaragarria izan zen, deskriba ezinezko sen-

tsazioa". Ikastaroa bukatuta, ikasitakoa praktikan jartzeko ordua iritsi zitzaizen eta Kurtzebarritik egin zuten lehen saltoa. Orduan ez zuten irakaslerik Walki talkiekin gidatzeko, baina ilusioa hain handia izanda, ia ohartu barik airean aurkitu zirela. Lehen saltoa eta gainontzekoetan sentitutakoa ez dela berdina dio Iñakik, gero eta gehiago praktikatu gero hobeto ezagutzen ei da medioa.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Delta hegoan edo parapentean saltoa eman baino

lehen begiratu behar da hegoa edo parapentea egokituta dagoen eta pertsona behar bezala lotuta. Mendiaren orientazioa eta haizearen norabidea ere kontuan hartzeko datuak dira. Haizea kontran beti parapentea puztu ahal izateko eta irteerarako 30 km orduko abiadura baino gutxiagokoa behar da, bestela irteera arriskutsua izan daiteke. Mendira igo baino lehen lurreratzeko lekua erabaki behar da eta bat baino gehiago izanez gero, hobeto, saltoa ematen denetik lurre-



Kurtzeberri da kirol hauek egiteko inguruko leku aproposena.

ratu arte zer gerta daitekeen jakiterik ez dago eta.

Arropari dagokionez, kaskoa eta guanteak derri-gorrezkoak dira. Trekineko botak erabiltzea gomendatzen da lurreratzeko orduan orkatilan lesiorik gerta ez dadin eta gorputzerako arropa eroso eta beroa janztea.

Parapentea eta delta hegoan ibiltzeko, pertsonak ez du behar ezaugarri berezirik, ausardia apur bat litzateke

DELTA HEGOA ETA PAREPENTEA

Parapenta eta delta hegoa, tresna zeharo desberdinak direla esan behar. Itxuran zein gidatzeko eran dira desberdinak "Parapentea airean puztu eta soken bidez gidatzen den oihal bat da; delta hegoa, berriz, tubo batzuez osatutako hegoa. Gainera parapentean pertsona eserita doa eta deltan etzanda". Pisuaren ere desberdinak dira tresna



bakarra "Ilusioa eta gogoia izanda edonork egin dezake jautzia parapentea edo delta hegoan. Jendea ez da ausartzen baina behin probatu ondoren horrenbesterako ez dela konturatzen da".

biak, delta hegoa askoz ere astunagoa da, 30 kilo izan dezake; parapentak erdia. Deltak turbulentiak hobeto onartzen ditu eta baita baldintza gogoragoak ere, eta hartzen duen abiadura handia da, 100 km/ordukoa. Abiadura handia hartzen duenez lurreratzeko leku gehiago behar du. Arrisku aldetik antzerakoak direla esan daiteke "Bakoitzak bere gauzak ditu, delta hegoa aparatosuagoa da eta lurra hartzeko orduan parapenta baino arriskutsuagoa izan daiteke. Hala ere, irteteko orduan parapenta kontrolatzea zailagoa da".

ARRISKUTSUA DA KIROL HORI?


Itxuraz tresna hauekin hegan egitea oso arriskutsua da, baina kirol hauen zaleek ez dute halakorik uste, jarri dioten fama txarra gehiago ei da errealitatea baino "Arriskuko kirola dela ezin da ahaztu baina jendeak jarri dion prentsa txarra da gehien bat. Urtean hegaldi asko egiten da eta istripuak oso gutxi izaten dira. Arriskua alde batetik pertsonak jar dezake eta bestetik lekuak, leku berria bada batez ere. Azkenean pertsonak era-

bakitzen du dauden baldintzen arabera saltoa ematea, beraz, baldintza onekin eta hartu beharreko neurriak hartuta ez du zertan kirol arriskutsua izan behar".

Kirol arriskutsua izan ez arren, Iniakik eta Anak behin baino gehiagotan pasa dute estualdirik, baldintza onenak ez daudenean edo zerbait txar to egin dutenean. Iniakik bat gogoratzen du bereziki "Tella-menditik egin nuen salto, parapentea zulatu egin zitzaidan eta normala baino gehiago hasi zen jeisten.

Ara-maioko herrian lurreratzeko arriskutsua izango zela pentsatu eta bariantarantz jo nuen. Errepidean lurra hartzen saiatu behar nintzenean kotxe bat zetorrela konturatu eta arzenera joan nintzen. Trafiko seinale batean geratu nintzen zintzilik. Zartada galanta hartu nuen". Anak, berriz, Urkulun pasa zuen berea "Kurtzebarritik saltoa egin eta lurra hartzeko orduan altura gutxirekin nindoala konturatu nintzen, eta betiko zelaira joatea ezinezkoa egingo zitzaidanez beste zelai batean lurra hartzen saiatu nintzen. Saiatu bai, baita bi erromara artean geratu ere. Abiadura gutxi neramanez sustoa zartada baino gehiago izan zen"

Sentsazio berri eta bereziak sentiarazten duen kirol hau nahiko garestia da. Ikastaro normal batek 40.000 pta balio duenean eta lehen eskuko parapenta batek 300.000 pta, ezin esan merkea dela "Ikasleek ikastaro merkeagoak aurki ditzakete Unibetsitateen bidez eta parapentean ibiltzeko horrenbesteko ilusioa izanez gero, bigarren eskuko parapente itxurosoak daude 100.000 pta". Hala ere, diru asko da eta edozeinek ez du kirol hori praktikatzeko aukerarik.



Airetik inguru ezagunak zeharo desberdin ikusten da.

Imanol Alvarez

“Denboraldi hasierako helburua bete dugu”

Arrasate eskubaloitako taldeak lehen mailan jarraituko du beste urtebete gutxienez. Denboraldi honetan helburu guztiak bete dituzte eta ez dute jeitsiera fasea jokatu behar izan lehen mailari eusteko. Imanol Alvarez entrenatzaileak pozik egoteko arrazoirik badu, bere jokalariek lehen mailan jokatzeko kategoria badutela erakutsi dute eta.

- Lehen mailari eutsi diozue, zuentzat zer esan nahi du horrek?

- Arrakasta handia. Urtea gogorra izan da eta azkenean jeitsiera fasea ekiditu dugu, gure helburu nagusia jeitsiera fasea jokatu barik lehen mailari eustea zen eta lortu egin dugu.

- Denboraldi hasieran esperantzarik bazenuen?

- Bai, bazegoen nire helburuetan. Nik ez nuen pentsatzen goiko aldean sartzea ezta igotzea ere, guretzat ezinezkoa litzateke hori lortzea. Gure helburua promoziotik kanpo geratzea zen eta azken partidura arte gogor lan egin behar izan dugun arren, merezi izan du.

- Nolako izan da denboraldia?

- Hasieran jokalarien esperientzia eza ordaindu genuen. Gainera, maila honetan lehenengo partidua esperientzia handiko taldeekin jokatu behar izan genituen, beldurtu egin ginen eta zalan-zakor geunden bigarren fasean gerta zitekeenaz. Baina jokalariek ez dute huts egin eta gero eta hobeto jokatuz, talde sendoei irabazi diegu, bigarren fase bikaina egin ez.



Jokalariek izan dira denboraldiko protagonista nagusiak.

- Denboraldiko gauza positiboena eta negatiboena?

- Negatiboena lesioak izan dira, Ricardo eta Zabalo lesionatu egin ziren eta benetan lan bikaina egin duten jokalariek izan dira. Positiboena helburua bete dugula eta taldea gero eta hobeto ikusten dudala.

- Denboraldi hasieran hainbat fitxaketa egin zenuten, ondo erantzun dute?

- Bai, ezin dut aurkakoa esan. Fitxaketa batzuk egin ziren helburu zehatz batzuk lortzeko eta helburuak bete ditugu. Beraz, jokalariek eta herrikoak ondo erantzun dutela azpimarratu behar.

- Zer maila egon da ligan?

- Espero nuen maila aurkitu dut, lehen mailan bi urtetan jokatu izan dut, ezagutzen nuen zer zegoen, eta ez nau harritu. Eskubaloian ohorezko mailan oso nibel altua dago, gurean ere bai baina ezin da parekatu ohorezko mailarekin.

- Ligako talde onenak zeintzuk iruditu zaizkizue?

- Lortu ditugun emaitzen arabera, Zarautz eta Ereintza. Hala ere, ez dute mailaz igotzea lortu. Gure multzoan aipatu horiek izan dira onenak, gaitzetzeko multzoetako taldeak ez ditut gertutik ezagutzen.

- Epaileak nolakoak izan dira Arrasateko taldearekin?

- Galtzen denean taldearen lana eta epaileena begiratzen da eta gauzak txarto irten badira beti epaileei errua botatzeko gertu izaten gara. Pertsonalki uste dut epaileek ez dutela horrenbesteko eraginik izan lortu ditugun emaitzetan. Burgos eta Bejar taldeen kontrako partiduetan, beharbada, bai, gainontze koetan ez. Hala ere, ezin dugu ahaztu berriak izan gara lehen mailan eta epaileek, zalan-zakar badute, berrien kontra pitatzen dutela, ez dute arriskutzen.

- Denboraldia bukatuta, Gipuzkoako kopan hartu behar duzue parte, ezta?

- Bai, igande honetan hasten gara Gipuzkoako koparekin. Lau talde izango gara lehia: Zarautz, Ereintza, Arrate, eta gu. Lehen partidua zapatuan jokatuko dugu Arrateren kontra.

- Datorren denboraldiari begira aldaketak izango dira taldean?

- Ez dakit jarraituko dudan edo ez. Ni gustora nago baina oraindik ez dute nirekin hitz egin. Jokalariekin pozik nago eta denak jarraitzea gustatuko litzaidake baina entrenatzaile naizen neurrian, taldea indartzeko fitxaketa batzuk eskatuko nituzke. Datorren denboraldia gogorragoa izango dela uste dut.

- Nola ospatu zenuten permanentzia?

- Partiduen ostean Lanzaroten juerka egin genuen eta Arrasatera astelehenean nekatuta heldu ginen. Gero, asteazkeneko afarian berriro jokalariek eta direktiboak lortutakoa ederto ospatu genuen.

San Viator Ikastola Irakaskuntzaren aldaketeei aurre egiteko gertu



Ze eboluzio izan du Bigarren Hezkuntzak azken urteotan?

Orain dela 10 urte San Viator Ikastolak Irakaskuntza Ertaineko Erreformatan (REM) hasitako lana gaur egun Logsek planteatzen duen etapa berriarekin (12-16 etapa) bat dator. Urte hauetan garatutako esperientzia gogorra baina aberasgarria izan delako etapa berri eta zail honetarako behar diren egokitzapenak eta antolaketa guztietarako prest gaude.

Etapan honetan, 1994-1995 ikasturtean, ze pauso eman dituzue?

Erreformatan planteatzen dituen ideien artean ikaslearen protagonismoa dugu. Protagonismoa bere ikasketa ibilbidea aukeratzeko unean. Adinaren arabera aukeragarritasuna zabalduz joan beharko da.

Ikaskurte honetan hasiera eman diogu prozesu honi. 14 urteko ikasleak hiru arlo hauen artean bat aukeratu izan du:

Frantsesa, Antzerkia eta Komunikabideak eta Ikerketa tailerra.

Honekin batera musikaren ezarpena ere martxan jarri dugu Bigarren Hezkuntzan, lehen hezkuntzan jorratutako bidea jarraituz.

Aipatzeko beste aldaketarik izan da?

Irakaskuntzaren erreformarekin batera Batxilergoak ere planteamendu berriekin etorriko zaizkigu. Batxilergo berri hauetan aldaketak eta berrikuntzak egongo dira, besteak beste, antolaketa aldetik, metodologia aldetik eta batez ere aukeren aldetik. Guzti honen inguruan irakasleok prestakuntza lana burutzen ari gara ikasturte honetan zehar.



Pilar Askasibar

San Viatorrek eskaintzen dituen Batxilergo motak hauek dira:

Natur Zientziak eta Giza Zientziak.

Ikasleen ordutegia trinkoa da. Goizeko 8retatik eguerdiko 2.30etara eta asteen behin arratsalde 3.30etatik 5.30etara.

Ordutegi honen ezarpena arrazoi hauetan oinarritu zen. Alde batetik ikaslearen autonomia bultzatzeko asmoz, ikasketarako duten denbora pertsonalaren antolaketa eta planifikazioa hobetzeko eta beste aldetik Unibertsitatean nahiz moduloetan aurkituko duten lan dinamikan egokitzeko.


Denbora libre betetzeko eskaintza berezirik baduzue?

Bai, 14-18 urte bitarteko ikasleentzat, zaletasunak bultzatzea, ohitura osasuntsuak, ingurunearen ezagupena, azken finean denbora librearen gozamena inportantea iruditzen zaigulako, kirol eta osasun sailetik ahalegin handia egiten ari da 14 urtetako gorako ikasleei ere eskaintza zabala egiteko.

Aurten antolatutako eskeintzen artean barne kirol lehiaketak (futbola, saskibaloia, eskubaloia), asteburuko irteerak (ski, mountain bike...), udako irteerak (mendi travesia...), ariketa fisikoari buruzko informazio orokorra eta aholkularitza ikastaroak (parapente, piraguismoa, areto dantzak, aerobic...) daude.

**INFORMAZIO GEHIAGO
NAHI IZANEZ GERO,
NIREKIN, PILAR ASKASIBARREKIN,
JARRI ZAITEZKE HARREMANETAN.
TFNOAK: 79 04 11 - 79 13 24**

Alda itzazu zure abizenak euskal grafiara!



Orain AEDk zure abizenak legalki euskal grafiara aldatzeko aukera ematen dizu.

Ez zaitetz etxean geratu eta etor zaitetz lehen bait lehen guregana.

Ekarri NANaren fotokopia bat eta 500 pezetaren truke guk egingo dizkizugu tramite guztiak, zuk abizenak euskaraz euki ditzazun.

Kanpaina honek maiatzaren 1etik ekainaren 16a arte iraungo du.

Aldatzeko edo informazio gehiago nahi izanez gero, zatoz astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean, AED El-kartera (Pablo Uranga, 6. Tfnoa: 77 12 28).

EBA ligan jarraituko du Urbina Maltzaga berriztatuak

Urbina Maltzagak Leonen lortu du EBA ligan jarraitzeko txartela. Bi partidu jokatu zituen eta biak irabazi. Leoneko partiduetara Arrasateko jarraitzaile asko joan zen, Peña Otxoak autobusa atera zuen domekarako eta autoz ere arrasatear asko inguratu zen. Partidua bukatu zenean primeran ospatu zuten Arrasateko jarraitzaileek taldearen garaipena eta ez zen gutxiagorako, EBA ligan jarraitzea zen guztion helburua eta helburua bete ahal izan zuten Txus Brizuelaren mutilek.

Garaipen hauekin Urbina Maltzagak aurtengo denboraldiko helburuak bete dituela esan dezakegu. Denboraldi irregularra izan da Txus Brizuelaren taldearentzat eta zorte gehiegi ere ez dutela izan esateko moduan gaude. Izan ere, zenbait partidutan tantu bateko aldeaz galdu du taldeak eta hori denboraldi bukaeran igerrri egin da. Hala ere, jeitsiera faseko play off-ean Arrasateko jokalariek EBA ligan jarraitzeko maila badutela



Urbina Maltzagako jokalariek ostegunean joan ziren Leonrutz ilusioz gainezka.

erakutsi dute eta David Scott amerikarrak gain, taldeko beste jokalariek erantzunkizuna hartu behar denean hartzen badakitela erakutsi digute. Txintxurreta, Arrue, Coca,

Garai jokalaria erabakiorrak bihurtu dira play offean. Baina beharbada, datorren denboraldian aipatutako jokalaria guztiek ez dute jarraitzeko aukerarik izango. Urbina

Maltzagak Basconia Taugres taldearekin filiala izateko akordioa sinatuko du egun batzuk barru eta horrek erabat aldatuko du taldearen egitura. Une honetan David Scott amerikarrak ez du taldean jarraituko eta dagoeneko alde egin du Arrasatetik. Hala ere, hori ez da taldean izango den aldaketa bakarra, Txus Brizuela entrenatzailearen jarraikortasuna ere zailtzan dago.

Play Off-eko emaitzak

Urbina Maltzaga 72 - Elmar Leon 75
 Urbina Maltzaga 88 - Elmar Leon 68
 Elmar Leon 66 - Urbina Maltzaga 76
 Elmar Leon 72 - Urbina Maltzaga 73

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 2 - Alaves 3.
 2. erregionala: Aloñamendi 1 - Mondra 1
 Emakumeak: Mondra 2- Bizkerre 3
 Jub Ohorezko Liga: Mondra 2 - Zumaiako 5
 Lehen Kadeteak: Arrasate 6 - Aloñamendi 4
Hurrengoak:
 3. maila: Urola - Arrasate. Igandea. 5etan.
 2. erregionala: Mondra - Gazteak. Larunbata. 5etan. Atxabalpen.
 Emakumeak: Mondra - Bergara. Igandea. 11etan. Atxabalpe.
 Jub Ohorezko Liga: Urola - Mondra. Igandea. 11etan.
 Lehen kadeteak: Bergara - Arrasate. Larunbata. 12etan.

Infantilak: Arrasate - Soraluze. Ostirala. 6.30etan. Atxabalpe.

Saskibaloia

EBA Liga: Leon 66 - Urbina Maltzaga 76.
 EBA Liga: Leon 72 - Urbina Maltzaga 73

Eskubaloia

Lehen Territoriala: Ayerru 22 - Arrasate 16
 Kadeteak: Ordizia 22 - Arrasate 19
 Kadeteak: Arrasate 5 - Urola 10
Hurrengoak:
 Lehen maila: Arrasate - Arrate. Asteazkena. 8.30etan. Iturripen.
 Lehen Territoriala: Arrasate - Usurbil. Larunbata. 6etan. Musakola.

Kadeteak: Arrasate - Pasajes. Larunbata. 4etan. Musakola.

Futbitoia

Lehen maila: Promorioja 2 - Arrasate 2.
 Arabako territoriala: Atletico Vitoria 5 - Arrasate 2
Hurrengoak:
 Lehen Maila: Arrasate - Ibeko. Larunbata. 6etan. Iturripen.
 Arabako territorialekoek: Arrasate - Urko. Larunbata. 4etan. Iturripen.

Rugby-a

Emakumeak: Durango 70 - Arrasate 0.
Hurrengoak:
 Seniorrak: Arrasate - Atletico bera. Larunbata. 5etan


Garagartza. Emakumeak: Arrasate - kakarraldo. Larunbata. 4etan. Garagartzan.

Pilota

Herri artekoa
 Beasain - Arrasate. Infan(18 - 13), Jub (4 - 22), Nagu (4 - 22)
 Nagusiak: Beasain 4 - Arrasate 22
 Herri arteko herramientan:
 Paletan: Arrasate -35 Anoeta 16
 Pala Motza Arrasate 23 - Anoeta 40
Hurrengoak:
 Herri artekoa: Arrasate - Zaldibia. Larunbata. 11etan. Iturripen.
 Herri arteko Herramientan:
 Andoain - Arrasate. Larunbata.
 Deba Arroa: Arrasate - Eskoriatza. Asteartea.

Leopoldo Panero

“Poesia hil egin da”



Leopoldo Panerok “Orfebre” poesia liburua idatzi berri du. Bertan, poesia hil egin dela dio. Liburuaren inguruan hitzegiteko asmoz, elkarrizketa bat izan genuen berarekin, baina zaila zaio hizketaldiaren hariari jarraitzea. Behin eta berriz zioen deprimituta dagoela.

— Idatzi berri duzun “Orfebre” liburuan, poesia hil egin dela esaten duzu. Zergatik diozu hori?

— Poesia hil egin da niretzat eta guztiontzat. Gaur egungo poesiak ez dauka zentzurik, testuak mekanikoak dira: teknika gehiegi eta inspirazio gutxi. Nik ez dut “inspirazioen monstroa” deritzaion horretan sinisten. Hilik nago.

— Nola uler daiteke hori?

— Hilik nago existentiaren obsesioatik borrokatzen ez dudalako. Existentiaren obsesioa bizitzaren frenesia da, maitasuna eta gauza guzti horiek...

— Maitasuna aipatu duzu... inoiz egon zara maiteminduta?

— Bai, emakumeekin eta baita gizonekin ere. Gaztea nintzanean poliziara denuntziatu ninduen gizon batekin maitemindu nintzen eta gartzelatik atera

nintzanean, nire amak gordeta zeukan “grifa” edo canabisa erre genuen elkarrekin Astorgako etxean. Ikaragarria, ez? Egia esan, oso mutil polita zen... Emakume batekin ere maitemindu nintzen, Maria Mercedes Blanco deitzen zen, Ama Birgina zen hura...

— Geroztik ez duzu maitasunik sentitu?

— Maitasuna guztiz desagertu da nire bizitzatik, ez dut jendeak min gehiago egiterik nahi. “Zoroetxe” horretan min handia egin

didate zoroek, “makarra nazkagarri” batzuk dira, begi txarrez begiratzen didate... lagun bat izan nuen baina “aske utzi zuten”.

— Ospitaletik alde egin nahi omen duzu. Nora joango zinateke eta zer egingo zenuke?

— Ba... Artelekura joango nintzateke lan egitera, poesia tailerren batera edo. Jakina, poesia teknikoak egiten erakutsi beharko nieke... Donostian biziko nintzateke, lagun baten etxean.

— Baduzu beste liburu-

ren bat idazteko asmorik?

— Ez dakit, agian bai... egia esan, ez dakit zertarako balio didaten.

— Ez dirudi oso pozik zaudenik...

— Deprimituta nago, egun osoa pasatzen dut deprimituta. Lehen, zoraturta nengoenean pozik bizi nintzen baina orain, lurra- ren infernura jeitsi naiz eta, oso gaizki pasatzen dut. Bizitza “putada” bat da...

— Ez zaude pozik zure bizitzarekin?

— Ez nago ez pozik bizitzarekin, nire bizitzarekin.

— Berriz jaioko bazina, zer egingo zenuke?

— Nire burua hilko nuke. Dena dela, orain nahiago dut poesiaren kontura bizi izatea, nire ustez, poesia, geratzen den existentzia bakarra da eta.

— Zer moduzko harremana daukazu herriko jendearekin?

— Nire buruari barre egiten diote eta izorratu egiten didate. “Xehebrea” naizela esaten dute eta ez zait gustatzen. Donostian errespetatzen naute baina Arrasaten ez.

— Esaten duzun guztia- gatik, nahiko kaotikoa edo katastrofista zarela esan daiteke...

— Bai, “egin dezatela zaunka txakurrek”, jendea izorratzea gustatzen zait.

“Egun osoa pasatzen dut deprimituta.
Lehen, zoraturta nengoenean
pozik bizi nintzen”

BADATUZ...



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



L

oakin Arana Ezpeleta "Loramendi" olerkariari bere jaioterrian egin zitzaion omenaldiko erretratoa da hau. 1959ko irailaren 20a zen eta beste ekintza askoren artean, txistularien saioa izan zen Bedoñan.

Bedoña auzoa artean Atxabalta zen, 1965ean egin baitzen Arrasateko auzo.

Omenaldi egun hartan Aretxabaletan zegoen Loramendiren omenezko harlauza Bedoñara eraman zuten. Aurrez ere 1935ean beste omenaldi bat egin zitzaion, baina 59ko hartarako bereziki sortu eta prestatu zen argazkian ikusten dugun txistulari banda. Argazkian denak ageri ez badira ere, (primeroak falta dira-eta) guztira 35 lagun inguru izango ziren, taldea osatzen zutenak.

Txistulari banda hura

Demetrio Iriarte txistulari handiaren ardura eta zuzendaritzapean antolatu zen. Aita ere txistua jotzen izan zen egun hartan. Ordurako Aretxabaleto Udaleko txistulari ardura zuen Iriarte semeak eta Udaletxeko enplegatua zen. Ume umetatik txistua eskuan izan du Demetriok, 70 urte daramatza musika tresna horrekin. Txistulari eta musikagile gisa eginiko lana eskertu guran iazko maiatzean urrezko domina jaso zuen.

Loramendiren omenaldi-koan, lehenik Arrasaten kalejira jo zuten eta autoetan igo

zuten Bedoñara. Bertako programaren barruan eskaini zuten saioan Monzonen "Minueto", Olaizolaren "Etxeko Jaun" eta Gorosarriren "Nahaste Borraste" jo zituztela gogoratzen du Demetriok.

Argazkian, atzean ezkerretik hasita, **Anjel Mari Gaztañaga, Jauregi, Demetrio Iriarte** aita, **Agustin Zarketa** eta **Ramon Etxaniz**.

Aurrean, **Inza oñatiarra, Pedro Iriarte, Felipe Vitoria, Etxenautia** eta ondoren haruntzago silboteak. Zuzentzen, **Demetrio Iriarte**.

ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.



- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5


20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

Z E R N A H I A G O ?

J. Antonio Zarraoa

“Arrasate” hotelekoa



- **Zergatik dago hain hotel gutxi Arrasaten?** Turismorik ez dagoelako. Hona datorren jendea lanera etortzen da, beraz, ez da jende multzo handirik etortzen.
- **Zein motako jendea etortzen da Arrasatera?** Batez ere, enpresa gizonak, kooperatibekin harremanak dituztenak.
- **Atzerritar asko etortzen da?** Datorren astean, “Koreako telebistakoak” etorriko dira... normalean, etortzen diren bezeroen erdia baino gehiago atzerritarak izaten dira.
- **“Izarrak” hotel baten mailaren erakusgarri izaten dira?** Normalean, bai.
- **Zenbat ohe dituzue?** 12 gela eta 21 ohe.
- **Noiz izaten duzue jende gehien?** Astelehenetik ostegunera bitartean, beteta egoten da hotela. Asteburuetan berriz, antzerki edo kontzertu bat egoten bada norbait izaten dugu.
- **Hotelean, gazteak ala adineko jendea; zer nahiago?** Oso gazte gutxi izaten dugu baina izan ditugunak ez digute arazorik sortu.
- **Zein izaten da lan astunena hotel batean?** Aste osoan lan egitea eta batez ere, ordu-tegi finkorik ez izatea.
- **Euskal Herriko hotel bat?** Hiriburuetakoak dira onenak.
- **Atera dituzu udako arropak armariotik?** Ez, oraindik ez.
- **Jarraitzen duzu hauteskunde kanpaina?** Egunkarietan zerbeit, baina interes handirik gabe.
- **Arzalluz ala Garaikoetxea?** Garaikoetxea.
- **Babak ala dilistak?** Babak.
- **Abeslari bat?** Imanol.
- **Baduzu biziorik?** Denak.
- **Badakizu “Egunkari Eguna” Arrasaten ospatuko dena?** Ez nekien, baina beharbada ondo etorriko zaigu hotelerako.

LABURRAK

Abesbatza topaketak

Datorren larunbatean Deba Garaiko Eskola Arteko Abesbatzen VIII. Topaketak burutuko dira Amaia antzokian. Aurreko topaketetan ez bezala, aurtengoetan bi saioetan kantatuko dute umeek; goizean 11.30etatik aurrera eta arratsaldean, 5etan hasita.

Guztira 713 kantore bilduko dira antzokian 15 taldetan banatuta. Almen ikastola, Umezaintza, SFX ikastola, Erguin Herri Eskola, San Viator ikastola, Aranzadi ikastola, Mariaren Lagundia ikastetxea eta Santa Eskolastika ikastetxea dira aurtengo abesbatza topaketetan parte hartuko duten eskolak.

Alaskari buruzko diaporama

Eskola Politeknikoko Biteri Egoitza Nagusiak, diaporama emanaldia antolatu du maiatzaren 9rako. Diaporama hau Felipe Uriarte abenturazaleak Alaskan barrena ateratako diapositibek osatzen dute. Diaporama arratsaldeko 7etan izango da.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK


Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

LANPOSTUAK

Unzuela Jatetxeak hurrengo lanpostuak betetzeko pertsonak behar ditu:

- Sukaldari laguntzailea.
- Esperientziadun kamareroa.
- Asteburuetarako laguntzailea.

Harremanetarako dei egin (945) 44 50 95 tfnoara.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

• ESAERA •

“Bidaiari handi guztiak bezala, gogoratzen dudana baino gauza gehiago ikusi dut, eta ikusitako baino gauza gehiago gogoratzen dut”


DISRAELI

• JEROGLIFIKOA •



Beharra

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Italian erabiltzen den hizkuntza. 9. Arrasateko rock-talde baten izena. 10. Haurra izan duen emakumea. 11. Almeriako ibilgailuetan. 12. Pilotan sakeaz igaro ezinezko marra. 14. Euskararen Gaitasun Agiria. 16. Semearen semea. 18. Kanpo. 19. Alfabetoko 4. letraren izena. 20. Maindire. 22. Inolan.

Bertikalak 1. Tramite. 2. Zoritzarrez. 3. Beharbada. 4. Musika-eskalako 6. nota. 5. Garo, iratze. 6. Eztia egiten duen insektua. 7. Eguzkiaren jainko egiptiarra. 8. Anarkistak. 13. Trebe. 15. Sugar, lama. 17. Barazki arrunta. 21. (Ald.) Sodio.

• HOROSKOPOA •

Aries Merengue-a dantzatzeko gerria mugitu behar da eta ez burua.

Taurus Herritik irteten zarenean, ura falta zaion arraina dirudizu.

Gemini Kafe larregi hartzen duzunez nerbio hutsa zara.

Cancer Psikiatra baten beharra duzula? Nabari zaizu.

Leo Atzoko berriak liluraturik utzi zintuen, ezta? Ba gezurra da.

Virgo Gaztaroan ondo bizi izan zinen eta orain ondorioei aurre egin behar.

Libra Garai zailak bizi dituzue etxean. Etorriko da barealdia.

Scorpio Zintzotasuna da zure bertuteetariko bat lo zaudenean.

Sagitarius Saltsa gustatzen zaitzu, arazoz inguraturik egotea, denek hizpide izatea...

Capricorn Datorren hilean bizi-tza konponduko dizun saria irabazteko aukera izango duzu

Aquarius Astebukaeretan badaezpada barruko erropa garbia jantzi.

Piscis Belarriak garbitzen badituzu hobeto entzungo duzu.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ




Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA


Xabier Zubizarreta alkatetzaz berbetan

Datorren osteguneko "Ni Alkate" saioa azkena izango da. Alkategai guztiak azken hauteskundearen arabera alderdi bakoitzak izan dituen kopurua araberako ordenean atera direnez, azken elkarriketatua HBko alkategaia izango da: Xabier Zubizarreta. Xabier, berriz ere alkate izatekotan etorkizunerako dituen asmoez gain, azken lau urte hauetako agintaldiaz mintzatuko da.


Bestalde, ez ahaztu, maiatzaren 18an udal-hauteskundei buruzko mahaingurua burutuko dugula ATBn. Mahaingurua Mikel Irizarrek zuzenduko du.



KOMIKIA



Sagu-Zar



EGVZKiGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PROGRAMAZIOA

**7 Igandea**

21.00etan
Mondragol. Itxaro
Zubillagak aurkeztua.

8 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

9 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Programa berezia:
Besaidek antolatuta,
"Istripuak mendian"
mahaingurua

10 Asteazkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Gazte-nahaste" Gaia:
Alkohola eta bere eraginak
gazteen artean.

11 Osteguna

13.30etan
"Gazte-nahaste" errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Ni alkate" hauteskunde-
programa. Gonbidatua:
Xabier Zubizarreta.

12 Ostirala

13.30etan
"Ni Alkate" (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Italiara, 9. Zaka-
rak, 10. Ama, 11. Al, 12. Pasa, 14.
EGA, 16. Itoaba, 18. Ar, 19. De, 20.
Izara, 22. Ezelan.
Bertikalak: 1. Izapide, 2. Tamalez,
3. Akaso, 4. La, 5. Ira, 6. Erte, 7. Ra,
8. Akritak, 13. Abril, 15. Gar, 17. Aza,
21. An.
Jergo-itikoa:
Premia.

Etxebizitzak

- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Arrasaten pisua** alokatuko genuke. Tfnoa: (94) 433 11 52. M^a Karmen.
- **Beste lagun batzuekin batera** pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Eskoriatzan. Tfnoa: 79 09 11. (Gauetz).
- **Pisua alokatzen da Bizkaia Etorbidean.** Tfnoa: 77 14 24.
- **Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten.** Tfnoa: 79 78 65.
- **75m²ko etxebizitza salgai** Grupo San Juanen. 2 logela, egongela, eskaratza, kalefakzioa eta kamara. Dei egin 79 18 86 edo 79 55 68 tfnoetara. Karnele.
- **Piriniotako apartamendu bat** "Sallent de Gallego" kostaldeko (Kantauri itsasoan, Landeta...) apartamendu bategatik trukatu nuke egun batzutarako aurtengo udan. Tfnoa: 77 04 70.

Lana

- **Klase partikularrak** ematen dira. UBI mailara arte. Matematikak fisika, kimika... Talde txikiak. Tfnoak: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko edo dendari lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17
- **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

- **Puerikultura laguntzailea** esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Batez ere ume txikiak. Tfnoa: 79 32 39
- **Esperientziadun emakume** heldua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 23 54.
- **Aste bukaeratan lan egiteko** bi neska gazte prest daude. Umeak, pertsona nagusiak, etxeak edo tabernak garbitu... Interesatuak dei egin arratsaldetan 79 77 32 tfnora 7etatik 10etara. Mari Karmen.
- **Frantsez, ingeles eta OHoko** klaseak ematen ditut. Tfnoa: 79 99 82. Miren.
- **Ingelesezko klase** partikularrak emango nituzke. esperientzia daukat. Tfnoa: 79 21 56.
- **Unzeta jatetxeak** hurrengo lanpostuetarako pertsonak behar ditu: sukaldari laguntzailea, kamarero eta asteburutarako laguntzailea. Dei egin (945) 44 50 95.
- **Esperientziadun emakumeak** etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Ingelesezko klase partikularrak** ematen dira. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnoa: 79 28 80.

- **Nissan Serena** salgai prezio onean. Tfnoa: 79 19 55.
- **Vespa beltza salgai**, SS-W. Tfnoa: 79 46 98. (Gauetan).
- **Produktu izoztua jartzeko irla salgai.** 1.70m.ko luzerakoa eta Capeli markakoa. Tfnoa: 29 82 58.
- **Sukaldeko altzariak salgai**, sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauean 79 01 66 tfnora. Arantzazu.
- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** 75.000 pta. Tfnoa: 79 00 99.
- **Ford Fiesta XR2, SS-Y** salgai prezio onean. Tfnoa: 71 42 19.
- **Sukaldeko mahaia** eta aulkiak salgai, baita sofakama ere, denak ia berri-berriak. Prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.

Denetarik

- **Betaurreko graduatuak galdu nituen** apirilaren 11n. Aurkitzen badituzu saritua izango zera. Tfnoa: 79 54 63.
- **Etxea jartzeko edozein altzari** eta elektragailuak behar ditut. Oso gustora hartuko nituzke zuk botatazko dituzunak. Tfnoa: 71 52 45.
- **Apirilaren 9an Andreseko plaza** inguruan urrezko pultsera bat aurkitu genuen. Amaia jartzen du. Tfnoa: 79 91 52.
- **Txakurkumea emango diot** nahi duenari pastor aleman arrazako umea da, martxoaren 31n jaiotakoa. Dei egin eguerdikio 1etatik 1.30etara 79 30 67 tfnora. Igor.
- **Apirilaren 17an urrezko eraztuna** galdu zitzaidan San Andresetik BBVrako bidean. Tfnoa: 79 29 97. Eskertuko da.
- **Hiru perladun belarritakoa galdu zait** Garibai Etorbidea inguruan. Tfnoa: 77 08 47.

Salerosketak

- **Gas naturaleko kalentadorea salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 79 59 72.
- **Bi pare eski** eta bi pare bota salgai. 33.000 PTA-gatik. Tfnoa: 79 25 31. Gauetz.
- **Kanping-denda salgai.** Oso handia eta egoera onean. Tfnoa: 74 15 22.

Aste Gazte

Bekak

- "Juan de Otalaza y Perez de Saracho" bekaren deia egin du Basauriko Udalak, Arte Plastikoen formazioan lagundu asmoz: Eskultura, pintura eta grabatua. Epea: maiatzak 20.
- "Obra hidrauliko eta Ingu-rugiro Departamenduak" Ingu-rugiro alorrean ikerketa-azterketak burutzeko lau beken deialdia egin du. Epea: maiatzak 31.
- EA Erentzat interesgarriak diren gaietan (energia ekoizteko teknologia, materiak berriak, bioteknologia...) atzerrian 95-96ko ikasturtean espezializazio

rako ikasketak egiteko bekatarako deia egin da. Epea: maiatzak 15.

- Diputazioko Kultura eta Turismo Departamenduak, bekak eta dirulaguntzak emateko deialdia egin du, arlo desberdinetan: musika, dantza, antzerkia, ikusentzutekoak, arte plastikoak, errestaurazioa, argazkigintza, literatur sorkuntza... Epea: maiatzak 27.

Udalekuak 14-17 urte

- Udaleku espezializatuak eta Hizkuntz egonaldiak. Uztaila eta abuztuan, leku desberdinetan. Aurre-inskripzioa egiteko

epea zabalik dago maiatzak 12ra arte. Izenematea Gazte Bulegoan.

Ikastaroak


- "Egonaldiak Familia Euskaldunetan". Uztailatik irailera bitartean gauzatuko da. 18-35 urte bitartekoei zuzendua. Epea: maiatzak 24.

Lehiaketak

- "San Juan jaiak 95" kartel lehiaketa. Arrasaten bizi edo eroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Epea: maiatzak 19.
- "Imajina ezazu Euskadi VIII ekitaldia". Margolaritza, argazkigintza, poesia, ipuinak... Epea: irailak 30.

"Españian esplo-tatu barik dagoen errekurtsio handiena gazteria da"


DAVID STEIN
"ROBERT KENNEDY
FUNDAZIOAREN BURU



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



Aluzinatu gure Feria!!



Autoaren Feria ikusgarria Meca-n
Maiatzaren 12tik 14ra



95eko gamaren aurkezpena
Twingoa probatzeko aukera

Prezio bereziak aukerako eta auto berrietan

Bisita gaitzazu eta berrikuntzak, prezio, ustegabeko opariak, etab. aurkituko dituzu



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



Amuebladora
Mondragonesa

Sartzen dena:
zeuk behar dituzun
altzariak



ARRASATEKO BARIANTEAN